

ELKARRIZKETAK: ELENA LAIZ • PT-ak ETA KONTSULTOREAK • EKARPENAK:
HERBEHEREETAKO HEZKUNTZA SISTEMA • GALDEIDAZUE: FERNANDO GOÑ
GRANDMONTAGNE • ARDITURRI • ATZEKO ATETIK: JULEN ZELAIETA

hh
hik hasi

137

4 EURO • 2009KO APIRILA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA




GAIA

Eskola Txikiak

Ikasbide eta aukera handiak

Udaberri honetan baduzu zer irakurri



aurkibidea



8
gaia

ESKOLA TXIKIAK

txikiak dira, baina gauza handiak egiten dituzte, dituzten berezko ezaugarriek horretarako bide ematen dietelako. proiektuetan oinarrituta lan egiteak, herrian txertatuta egoerak edota gurasoek eskoletan duten esku hartzeak, berezi giten ditu Eskola Txikiak. Haien esperientziak ekarri ditugu apirileko alera.



15
elkarrizketak

ELENA LAIZ eta PT ETA KONTSULTOREAK

eskola Txikietan arreta berezia eskaintzen diote irakasleen trebakuntzari. Elena Laiz, Eskola Txikietako prestakuntza arduradunarekin eta harekin batera lanean aritzen diren PT-ekin eta kontsultoreekin hitz egin dugu egiten duten lana gertuagotik azaltzeko.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

ESKOLA TXIKIAK

IKASBIDE ETA AUKERA HANDIAK

15 elkarrizketa

ELENA LAIZ

20 elkarrizketa

PTAK ETA KONTSULTOREAK

24 esperientziak

Nafarroa Oinez 2009, Etxarri-Aranatz

26 ekarpenak

Herbehereetako Hezkuntza Sistema

30 galdeidazue

Zer egin daiteke eskolan ikasleen autokontzeptu fisikoak lantzeko?
Alfredo Goñi Grandmontagne

33 berriak

40 nora joango gara?

Arditurri

Meategietan barrena aztarna bila

42 Atzeko atetik

Julen Zelaieta

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzio burua: Olatz Lasagabaster. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Arantxa Urbe, Miren Guilló eta Ainhoa Azpiroz. Erredakzio batzordea: Mikel Estonba, Mari Karmen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Kepa Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Matilde Sainz eta Pruden Sudupe. Administrazioa: Arantxa Goiburua. Diseinua: TRAM•Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Eskola Txikiak. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2009-3-25). Kopurua: 3.500 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

Harpidetza orria



hik hasi_k
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaituz!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan eta
argitararazten ditugun
gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala apirila

Antolaketa berrietan sakontzeko beharra



Beste herrialdeetako hezkuntza sistemetan publikotasunak baditu beste adierak. Oinarrizko Hezkuntza Akordioak plazaratua du proposamen bat Euskal Herriko Hezkuntza Publikoaren kontzeptuaren gainean.

Martxoan, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 26 lagun Herbeheretaraino joan ziren hango Hezkuntza Sistema bertatik bertara ezagutzera. Bidaia hori, Erkidek, Euskadiko Irakaskuntza Kooperatiben Federazioak antolatu zuen.

Astebetean hainbat ikastetxe ikusteko eta haietan nola lan egiten duten ezagutzeko aukera izan zuten. Horrez gain, herrialde hartako Hezkuntza arduradunen ahotik hezkuntza mailan dituzten erronken eta antolaketan berri jaso zuten.

Euskal Herriko eta Herbeheretako egoerak desberdinak dira, noski. Herbeherek bere hezkuntza sistema izateko eta arautzeko eskubidea dute, eta hori izango litzateke Euskal Herriarekin duen desberdintasun nagusi eta oinarrizkoena. Eta hain sinplea dirudien eskubide horren ukapenak etengabe eta funtsean mugatzen du Euskal Herriak bere hezkuntza sistema antolatzeko beharko lukeen eskumena.

Ez litzateke ez gomendagarria eta

ez osasuntsua ere, beste lekuetan baliagarriak izan daitezkeen jardunbideak eta ekinbideak besterik gabe eta bere horretan gurera ekarri nahi izatea. Tokian tokiko errealitateari erantzuten dioten bideak izango dira, ezbairik gabe, hezkuntza sistema egoki eta bidezkoagoa garatzeko oinarri sendoenak.

Hala ere, beste herrialdeetan zer eta nola egiten duten ezagutzea eta aztertzea beti da interesgarria. Interesgarria, aberatsa eta beharrezkoa. Jakinik, betiere, nekez aurkituko dugula inon etxean konpontzeke ditugun arazoentzako errezeta.

Eta behin konpontzeko ditugun arazoak aipatuta, publiko izaeraren hainbat interpretaziok ematen dizkigun buruhausteak aipatu behar ditugu. Askotan, eguneroko inertzien pentsarazten digute funtzionatzen dugun modua dela funtzionatzeko modu posible bakarra. Orduan, begirada egunerokoaz haratago luzatu eta baliagarriak diren beste antolaketak badaudela ikus genezake.

Herbeheretan ikasle bakoitzari diru kopuru jakina izendatzen zaio ikasketetarako. Behar Bereziak dituzten ikasleek gainerakoek baino hiru aldiz gehiago jasotzen dute. Irakasleek, denek, lan bera egiteagatik lan baldintza berak dituzte. Eta eskola herri ekimenekoa edo publikoa izan ez da erabakigarria ikasleek eta irakasleek, eta haiekin gurasoek, hezkuntzarako duten eskubidea ezaugarritzeko.

Horrek, gainera, atenzioa beste alor batzuetan jartzea ahalbidetzen du, eta aukera berriak zabaltzen ditu.

Euskal herritarren Hezkuntza eskubideak jasotzen dituen Oinarrizko Hezkuntza Akordioak plazaratu zuen proposamen bat Euskal Herriko Hezkuntza Publikoaren kontzeptuaren gainean. Hainbat herrialdeetan gartzen diren praktikak ere hor daude. Beharrezkoa da hezkuntzari estu eta labur geratu zaizkion kontzeptuetan sakontzea. Sakontzea, denak hobeto kabituko garen formulazioak marrazteko eta arautzeko.

kronika

Seaska eta Frantziako Hezkuntza Ministerioa negoziatzen hasi dira berriz, eta martxoaren 11an bildu ziren Parisen. Ikasturte hasieran akordioa lortu zutela jakinarazi zuten Seaskak, baina, azken unean, Paueko Akademia Ikuskaritzak atzera egin zuen, akordiorik ez zela esanez. Orain, negoziazioei heldu diete berriz.

Martxoko bilkuran Thierry Tesson Hezkuntza Ministerioko eskualde hizkuntzetarako aholkulariak, William Marois Bordeleko Akademia Errektoreak, Philippe Caerriere Paueko akademia ikuskariak, Max Brisson Euskararen Erakunde Publikoko presidentek eta Paxkal Indo Seaskako lehendakariak hartu zuten parte.



Berria

Eskolak euskaldundu behar duenaren aldarria

Nafarroan, eskolak euskalduntzeko aldarrikapena egunerokoa da. Datorren ikasturtean, zenbait eskolatan ezarriko den TIL ereduaren kontrako adierazpenak eta protestak, hainbat eskolek jasaten duten egoera, eta euskalduntzearen gaineko aldarrikapenak eguneroko gaia dira. Protesta horien guztien artean manifestazio jendetsua izan zen Iruñean joan den martxoaren 6an. Eskolak Euskaldundu herri ekimenak deitu zuten mobilizazioa eta Nafarroan eskolak euskalduntzeko beharra aldarrikatu zuten beste behin ere.

Sortzen-Ikasbatuaz elkarteko Nestor Martinezek “euskal herritarrak egunez egun euren hizkuntza eta hezkuntza eskubideen uraketaren begirale” direlasalatu zuten, eta “gure herriko hizkuntza ezagutzeko dugun eskubidea sistematikoki hausten dela” gaineratu

zuen. Antolatzaileek manifestazio amaierako hitzaldian esan zutenenez, Nafarroako Gobernuak trikimailu anitz erabiltzen ditu euskara desagertarazteko, eta hezkuntza etapa guztietan ikasketak euskaraz garatzeko arazoak izaten direla salatu zuten.

Haur Hezkuntzan, Nafarroan haur eskola publiko gutxi daudela esan zuten eta gutxiago, oraindik, euskarazkoak. Gainera, herritarrek haur eskola euskaldun eta hezitzaileak eskatu dituzten arren, administrazioak gestora pribatuek kudeatutako haur eskolen alde egin duela azpimarratu zuten. Lehen eta Bigarren Hezkuntzan berriz, A, G eta TIL ereduaren ondorioz, bost nafarretatik bakarra euskalduntzen dela salatu zuten. TIL ereduaren, Nafarroako Hezkuntza Departamentuaren “beste iruzur bat” dela salatu zuten eta “garpeneren izenean saldu izan dituzten ingelesezko ereduak D ereduari trabak jartzeko besterik ez dituztela sortu” azpimarratu. Derrigorrezko Hezkuntza amaitzean, berriz, gauzek okerrera egiten dutela nabarmendu nahi izan zuten.

Hori guztia kontuan hartuta, hizkuntza eta hezkuntza eskubideak berma daitezken, bide berriak jorratu behar direla adierazi zuten antolatzaileek.

Badugu ikuspegi milenario bat, erro indigena bat.

Ion Sarasua



Berria

Gamere-Zihigako eskola itxi egingo dute

Zuberoako Gamere-Zihiga herriko eskola itxi egingo dute datorren ikasturtean. Bertako irakaslea kentzeko erabakia hartu du Departamenduko Hezkuntza Batzordeak eta haurrek Atharratzeko eskolara joan beharko dute 2009ko irailetik aurrera. Larraineko eskola ere antzeko egoeran da, baina oraingoz ez dute itxiko. Orotara, 25 irakasle postu kenduko dituzte.

Akademia Ikuskaritzak proposatu duen eskola karta ontzat eman du Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Hezkuntza Batzordeak, eta eskola publikoan 25 irakasle postu gutxiago egongo dira. Eredu elebidunari, bederatzir lanpostu eta erdi emango dizkiote eta eredu frantses elebarkarrean, bi kenduko dituzte. Beraz, eredu elebiduneko zazpi lanpostu irabaziko dira.

Era berean, SNUP-IIP sindikatuak

Euskararen Erakunde Publikoaren eta Akademia Ikuskaritzaren arteko akordioa urratu dela salatu du. Donibane Garaziko eta Azkaineko eskola publikoetan euskara eredu indartzea onartu zuten, baina, Akademia Ikuskaritzak esan duenez, ez die horretarako baliabide gehiago emango.

Eskola ixteen eta lanpostu murrizketen kontrako hainbat protesta izan dira martxoan zehar Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan. Beste beste, gurasoek, Barkoxeko eta Gamere-Zihigako eskolak eta Donibane Lohizuneko Haize Errota eskola okupatu zituzten.

Atharratzeko ikastolari laguntza

Lezoko eta Oiartzungo Udalek Atharratzeko ikastolari laguntzeko hitzarmena sinatu dute. Zehazki, euskara eta Euskal Herriaren iraupena eta garpenera sustatzeko laguntza da eta Nazio Eztatanda Guneak sustatu du ekimena. Lezoko eta Oiartzungo Udalek 18.000 euroko diru laguntza emango diote Zuberoako ikastolari. Ikastolak laguntza eskertu du eta horrelako harremanak elkar ezagutzeko oso emankorrak direla adierazi dute. Hitzarmen horren harira, Lezon eta Oiartzunen Zuberoako ohituretan oinarritutako jaialdia egingo dute ekainaren 21ean.

Nafarroan, D ereduari matrikulatzeko deia egin dute hainbat eragilek aurrematrikulazio kanpainak irauten duen bitartean. Euskararen Kultur Elkargoak, Sortzen-Ikasbatuaz-ek, Nafarroako Ikastolen Elkarteak eta NIZEK, D ereduari matrikulatzeko deia egin dute eta NIZEK, atzerritarrei deia berezia egin die haurrak D ereduari matrikula ditzaten. Martxoaren 9tik 16ra luzatu zen kanpaina Nafarroan eta epe hori hainbat aldarrikapen egiteko erabili zuen Haur Eskolak Euskaraz plataformak. Izan ere, Iruñeko haur eskoletan euskararen "diskriminazio ikusgarria" gertatzen dela salatu du plataformak, 17 haur eskoletatik bitan soilik ematen baitute hezkuntza euskaraz eta bi horiek Txantrea auzoan daudenez, familia gehienei ezinezkoa zaie haurrak bertara eramatea.

GAIA

Eskola Txikiak

Ikasbide eta aukera handiak





Eskola Txikiek berezko ezaugarriak dituzte eta, eskola handiagoek normalean eskaintzen ez dituzten aukerak eskain ditzakete. Herrian txertatuta egoten dira, talde heterogeneoak izaten dituzte, proiektuetan oinarritutako ikaskuntza bultzatzen dute... Ikasleei, irakasleei eta gurasoei elkarlanean eta elkarreraginean aritzeko aukera handiagoa ematen diete eta txikiak izan arren, ikasbide eta aukera handiak eskaintzen dizkiete bertara joaten diren ikasleei. Txikitasunean handi izan daitezkeela erakusten du haien eguneroko lanak.

Bi hitzetan esanda: proiektuen bidez, elkarreraginean lanean eta testuinguruari egokituta.



Isabel LAKUNTZA ARREGI
ESKOLA TXIKIETAKO KOORDINATZAILEA

Eskola Txikiak herri txikietan edo sakabanatutako auzoetan dauden eskolak dira. Gipuzkoan 28 Eskola Txiki daude, eta berezko ezaugarriak dituzte: herriko haur gehienak eskola horretara joaten dira, eta hainbat adinetako taldeetan biltzen dira; hau da, eskolan sei unitate baino gutxiago daude, herriko eskola bakarra eta publikoa da, eskalduna da eta herrian integratua dago.

Berezkoak ditugun ezaugarri horiek abantaila handiak dira haurren hezkuntzarako eta garapenerako. Nahiz eta gizartearen aurrean talde heterogeneoen balio pedagogikoa argudiatu beharra izan, esperientziak erakutsi digu ikaste prozesurako aberastasun ikaragarria dela gela berean hainbat adinetako haurrak izatea. Esate baterako, txikiak diren haurrekin eta ozen

ari garenean, zaharrenek hori entzun eta ikasitakoa gogoratuko dute. Eta alderantziz, zaharrenekin ari garenean, txikienek edukiak aurreratu egiten dituzte, haien modukoak izan nahi dutelako. Gainera, horrek guztiak gaur egun irakaskuntza esparruan hainbeste entzuten diren gaitasunetan oinarrituta dagoen metodologia propioa ezartzera eraman gaitu. Bi hitzetan esanda: proiektuen bidez, elkarreraginean lanean eta testuinguruari egokituta. Lan erritmoa betiere haur bakoitzari egokitu zaio, eta irakaskuntza haurren beharretara moldatuko da.

Eskola Txikietan berezko beste ezaugarri bat eskola herrian txertatuta egotea da, eta haurrek komunitateko kide garrantzitsuak direla sentitzen dute, eskolak herriko bizitzan parte hartzen duelako; baserria ikerketa zentroa izan daiteke, eta herriko albisteak eskolako gai gisa erabil daitezke. Bestalde, ezin aipatu gabe utzi azken urteotan kanpoko familia ugari etorri direla herri txikietara bizitzera, eta eskolak haiek bertakotzeko lana egiten duela. Kanpotik etortzen diren haurrak oso erraz integratzen dira, eta euskara ere oso erraz jasotzen dute, herriko eta eskolako hizkuntza delako, eta gainera, oraindik ere herri horietan kalean jolasteko ohitura handia dagoelako. Harrema-



G

Esperientziak

nak eta hizkuntza hobetzeko aukera ematen die horrek. Hizkuntza ere ez da nolana hikoia, euskara aberatsa erabiltzen da, eta, kanpotik datorrenak, eredu ona jasotzen duenez, horrela ikasten du.

Eskola dagoen herria txikia izanik, urteren batean jaiotze tasa txikia izatea eta mailaren batean ikasle gutxi egotea gerta daiteke, baina arazorik gabe moldatzen dira beste mailako ikasleekin lagunak egiteko, taldean elkarrekin baitaude. Dena den, horretarako, zenbait eskolaren arteko harreman proiektuak osatzen ditugu, eta hainbat eskolako haurrak ekintzak egiteko biltzen dira, hala nola: eguneko irteerak, egonaldiak, kirol topaketak, antzerki topaketak, aldizkaria, blog-ak...

Eskola Txikiak irakasleak ere harremanetan gaude, eta hainbat mintegitarako, ikastarotarako eta "Adina Aniztasuna" deitzen den prestakuntzarako elkartzen gara, besteak beste. Dagoeneko urte batzuk badaramatzagu elkarrekin lanean, 87-88 ikasturtean sortu baitzen lehen aldarrikapen kanpaina. Kanpaina hartan Eskola Txikien duintasuna aldarrikatu nahi zen, eta, horrekin batera, Eskola Txikien abantailak ezagutarazi nahi izan ziren. Hurrezkeroko erantzuna oso positiboa izan da, eta elkarlanean aritu gara, jakina, unean uneko irakaskuntzaren beharrei erantzunez. Gure elkarlana alderdi hauetan oinarritzen da: prestakuntza, hobekuntza, komunikazioa (barnekoa zein kanpoko), ikasleen arteko harremanak, eta Eskola Txikiak topaketak.

Aurreko ikasturtetik, Eskola Txikietan, "Adina Aniztasuna" izeneko prestakuntza ematen ari da Elena Laiz irakaslea. Prestakuntza hori ikuspegi erakitzailean oinarritzen da, eta hainbat adinetako haurrekin gela berean lan

egiteak sortzen dituen zalantzei erantzunak ematen ahalegintzen da. Aurreko ikasturtean Gipuzkoako Eskola Txikiak hasi ginen lan horretan, baina, aurretik, Bizkaiko hainbat Eskola Txiki ere atxiki zaizkio egitasmo horri. Esan beharrik ez dago prestakuntza horren arrakasta handia izan dela eta, horrez gain, gure eguneroko lana antolatzeko ezinbesteko akuilu bihurtu dela. Gainera, beste eskoletako esperientziak ezagutzeko eta zalantzak argitzeko aukera ematen digu. Irakasleek ezinbestekotzat jotzen dute proiektu hori. Bestalde, Eskola Txikiak irakasleak hileroko biltzen gara, gure eskolak hobetzeko helburuarekin, alde batetik, eta koordinazio lana egiteko, bestetik. Ekainean, berriz, Bizkaiko eta Gipuzkoako Eskola Txikiak irakasleak eta gurasoak topaketetan biltzen gara.

Gurasoen partaidetza oso garrantzitsua da gure eskoletan, eskolan txertatuta daude, guztiz, eta ezin uler dezakegu geure lana haien laguntzarik gabe. Gainera, Eskola Txikiak balioz jabeturik, gurasoek koordinakundea osatu zuten 1993. urtean, kalitatezko hezkuntza ziurtatu nahian. Izan ere, gurasoek seme-alabak herrian bertan nahi dituzte.

Azken urteotan asko hobetu dira Eskola Txikiak, baliabideei dagokienez batik bat: ordenagailuak... Dena den, oraindik ere herri txikietan Interneteko konexioekin arazoak izaten ditugu, eta hori hobetu nahi genuke. Bestalde, eskola batzuk txiki gelditzen ari zaizkigu, eta beste batzuek berritzeko premia handia dute. Badira eskola berria dutenak ere.

Amaitzeko, esango nuke gure eskoletan ikasleentzat presarik gabeko haurtzaro lasaia eta zoriontsua nahi dugula.





Berrobiko eskolako Itsaso jatetxea Nik makarroiak, oilaskoa eta fruta

Berrobiko eskola Itsaso izeneko jatetxe bihurtu zen hiru hilabetez joan den ikasturtean. Lau eta bost urteko ikasleek, egunero, menu goxo-goxoak eskaintzen zituzten beren gelan. Bazkaria prestatzea, mahaia jartzea, bezeroei arreta eskaintzea... dena haien esku zegoen, eta, emaitza ikusita, argi dago negozio biribila egin zutela.

Ez zuten dirudik irabazi, ez. Negozio biribila egin zuten, Itsaso jatetxea zabalik izan zen bitartean, ikaragarri ikasi eta gozatu zutelako. Hiru hilabetez eskaini zituzten menuak lau eta bost urteko ikasleek. Egunero, 10:00etatik 11:00etara zabaltzen zuten jatetxea (asteazkenetan izan ezik, asteko atsedean eguna egiten baitzuten asteazkenetan), eta gainerako mailetako ikasleek mahaia gorde behar zuten bazkaltzera joateko, ezin baitzituzten lau bezero baino gehiago hartu. Mahaia, ahoz nahi telefonoz gordetzen zuten, eskolako web orrian ikusten zuten menua, eta horren arabera erabakitzen zuten jatetxera joango ziren edo ez. Inor animatzen ez bazen, ikaskideak gonbidatzen zituzten sukaldariak eta zerbitzariak.

Janariaren artean, jateko moduko zerbaite jartzen saiatzen ziren beti: ogi xigortua, olibak, txorizoa, patata frijituak, fruta, fruitu lehorrak... Baina plastilinez egindakoak edo plastikoz-



koak ere erabiltzen zituzten.

Jatetxe dotorea zen, eta, bazkaltzera joateko ere, hala joan behar zuten: dotore. Sartu aurretik apain-apain jantzen ziren bezeroak, eta, eguraldi ona eginez gero, terrazan bazkaltzeko aukera zuten.

Irakasleei bururatu zitzaizkien jate-txea zabaltzea, eta ikasleek hasieratik ilusioz hartu zuten proposamena. Berrobiko eskolan, Eskola Txiki guztietan bezala, proiektuetan oinarrituta aritzen dira lanean, eta aurrez ere beste negozio batzuk zabaldu izan dituzte: zapata denda, janari denda, garraio enpresa bat... Egunerokotasunetik ateratzen dira, eta haurrentzat erakargarriak diren gauzak egiten saiatzen dira. Sortzen eta asmatzen aritzen dira beti, eta, egun batean, jatetxea antolatzea otu zitzaizkien. Hasiera batean Haur Hezkun-

tzako proiektua zena laster zabaldu zen eskola osora.

Itsaso jatetxea: zabalik

Agurne Renobales eta Mila Arrondo irakasleek esan digutenez, lehendabizikoa lana jatetxearen izena jartzea izan zen. Guztien artean adostu zuten jate-txe berriaren izena: Itsaso. Jatetxea jartzeko behar diren tresnak eta gauzak arbelean zerrendatu zituzten, eta, ondoren, horiek prestatu, erosi edo etxetik ekarri zituzten: mahai zapiak, platerak, mahai tresnak, azpilak, edalontziak, jantzi proposak, dirua, koadernoak, bolaluma...

Sukaldariaren eta zerbitzariaren eginkizunak zehaztu zituzten ondoren. Sukaldariari mahaia atontzea, janaria prestatzea eta sukaldea txukuntzea zegozkion. Zerbitzariari, berriz,

Esperientziak

mahaia prestatzea, bezeroei menua erakustea eta idaztea, kobratzea eta mahaia jasotzea. Hamaika haur ziren gelan, txandatu egiten ziren, eta egunero bik hartzen zuten jate txearen ardura: sukaldariak eta zerbitzariak.

Menuen fitxategia egin zuten gero, lehen platerak, bigarrenak, postreak eta prezioak zehaztuz. Asteko menuak idatzi zituzten eta ordenagailura pasatu zituzten. Hasieran, eguneko menua eskaintzen zuten, baina, gero, bost euro erabiltzen ondo ikasi zutenean, menu berezia jarri zuten. Plater bakoitzak prezio bat zuen, eta zailtasuna handitu egin zen. Dirua jate txera sartu aurretik prestatu behar zuten; menu bereziaren kasuan, berriz, prezioak aldatzen zirenez, ondoren hartzen zuten dirua kuxatik.

Jangelako arauak guztiek errespetatu behar zituzten, eta, bestela, bertako arduradunek gogorarazten zizkieten; isiltasuna, lasai hitz egitea, garrasika ezer ez eskatzea...

Berrobiko jate txea bisitatu zuten, eta Mertxe zerbitzariari elkarriketa egin zioten, aurrez prestatuko galderak eginez; horrela, elkarriketa landu zuten. Mahaia nola jarri erakutsizien hark, mahai-tresnak nola kokatu... Izan ere, edozein txoko egiterakoan, eskolatik kanpora irteten saiatzen dira, gaiari lotuta, betiere.

Agurnek eta Milak azaldu digutenez, proiektuaren helburua, jolastuz, jate txeko pertsonaien rolak ezagutzea izan zen: sukaldaria, zerbitzaria, bezeroa... Jate txean egiten diren lanak egin zituzten hiru hilabetez: janaria prestatu, mahaia zerbitzatu, kobratu, ordaindu, menua prestatu... Eta horrek hainbat kontzeptu lantzeko aukera eman zien: menua, dirua, janaria, edaria, tresnak, jantziak, kopuruak, zifrak, harrera,

agurra... Joko sinbolikoaren bitartez, gauza asko lantzeko aukera izan zuten. Fitxak egiteko matematika erabili behar zuten, sailkapenak egin behar zituzten, kontaketa landu, dirua erabili, menuak antolatu, prezioak jarri, materiala era egokian erabili, jantzi-erantzi, jolastu eta ongi pasa... Garai hartanaldizkariko berriak lantzen ari ziren, al-

biste aldizkaria kaleratu zuten, eta jate txearen publizitatea sartu zuten aldizkarian.

Hiruhilabeteko polita eta emankorra izan zen. Ikasleek asko ikasi zuten, eta gustura aritu ziren. Gerora, txokoa kenduta ere, horretara jolasten jarraitu zutela nabarmendu dute Agurnek eta Milak.





Lau jaioberri Zerainen “Uxue jaio da!”

Uxueren jaiotzak proiektu berria eramán zuen Zeraingo eskolara. Matematika libururik gabe lantzeko erabakia hartu zuen Kontxi Errasti bertako irakasleak, eta ikasturte hura berezia izango zen, berez, baina are bereziagoa izan zen. Izan ere, Uxue Zerainen 2006ko udan jaio zen laugarren haurra izan zen, eta herri txikia izanik, ez da ohikoa hiru hilabeteko epean lau haur jaiotzea. Horrek “Lau jaioberri Zerainen” izeneko proiektua abiatzeko aitzakia eman zien.

2006-2007 ikasturtean egin zuten “Lau jaioberri Zerainen” proiektua. Kontxi Errasti Zeraingo eskolako irakaslea matematika ere libururik gabe lantzerantz animatu zen. Eta horretarako, proiektuetan oinarritutako sistema ezarri zuen. Ikasturtearen lehen egunean, bi ahizpek albistea ekarri zuten eskolara: “Uxue jaio da!”, eta horrek eman zion “Lau jaioberri Zerainen” izeneko proiektua gorpuzteko aitzakia.

Izan ere, Uxue jaiotzeaz gain, beste hiru haur ere jaio ziren uda hartan Zerainen, eta herri txikia izanik, hiru hilabetetan lau haur jaiotzea ez da gauza arrunta. Uxueren jaiotzaren albistea, jaioberriei buruzko interesa piztu zuen ikasleengan eta, hori baliatu zuen Kontxik proiektua abiatzeko. Lehenik, jaioberriak ezagutzera joatea proposatu zuten ikasleei. “Zeraingo jaioberriak



ezagutzen ote zituzten galdetu nien eta ezetz erantzun zidaten. Ezagutzeko gogoia agertu zuten eta horrela hasi zen proiektua”, azaldu digu. Hiru eta zazpi urte bitarteko haurrekin egin zuten proiektua.

Edukiak lantzen

“Lau jaioberri Zerainen” izeneko

proiektuarekin, beste proiektuekin bezala, liburuetan lantzen diren eduki eta prozedura berak landu zituzten, baina hauren interesetatik abiatuta, eta Kontxik esan digunez, hori asko nabaritzen da jarreretan eta emaitzetan: “Ez da gauza bera liburuko ariketak egitea edo haien kezketatik abiatzea eta hausnarketa egitea”.

Esperientziak

Proiektuak sei zati izan zituen:

Lehen zatian, jaioberriak ezagutzera joateko hainbat erabaki hartu zituzten. Lehenik, jaioberrien gurasoei baimena eskatu zieten, haiei egin beharreko galderak prestatu zituzten, bisitatze- ra joan ziren, argazkiak atera zizkieten, egindako galderen erantzunak pape- rean jaso zituzten eta erantzunak fitxeta- ra pasa zituzten.

Bigarren zatian, jakin-mina azaldu zuten ikasleek. Txikitan nolakoak ote ziren pentsatzen hasi, eta gurasoei egiteko hainbat galdera prestatu zituzten. Eta ondoren, erantzunekin eta argazkiekin, fitxa bana egin zuten.

Hirugarren zatian, aurreko fitxa betetzeko Kontxik egindako galdera erantzun zuten: txikitan, gurasoek abesten al zizueten? Haurrek haien etxeko sehaska kanten hitzak eraman zituzten eskolara eta lan berezia egin zuten: abestiak garbira pasa, poesia landu, abestiak ikasi zituzten... Haur Hezkuntzakoek irakurketa eta idazketa landu zituzten, eta Lehen Hezkuntzakoek, berriz, hori guztia eta bertsoen amaierak.

Lehen hiru zatietan hizkuntzako edukiak landu ondoren, laugarren zatian, matematika lantzeko aukera izan zuten. Txikitan nolakoak ote ziren pentsatzen hasi ziren eta orduan jasotako datuekin eta une horretan jasotakoekin, hainbat eduki landu zituzten: magnitudeak (altuera, pisua, denbora: urteak, hilabeteak, adinen arteko alderaketak...); datuen trataera; grafikoak osatzea (proporzioak)... Arazoen ebazpenak landu zituzten baita ere, hainbat galdera erantzunez, adibidez: zenbat urte zituen Aitorrek Beñatek hiru urte zituenean? "Nire ardurarik handiena matematika lantzea izan zen. Urteak, hilabeteak, bakoitza noiz jaio zen, egu-



na, pisua, altuera... Hori guztia landu genuen. Eta hori guztia batera ikusteko, grafikoa egin genuen. Arazoak sortzen hasi ginen. Haur batek esan zuen Uxue jaio zenean bere aitak 46 urte zituela eta zenbat izango ote zituen bera jaio zenean. Horrekin gauza asko landu genituen, lehenengo eta bigarren mailan kostatzen baitzaie denboraren kontzeptua barneratzea, eta zenbat gehiago edo zenbat gutxiago bezalako galderei erantzutea", azaldu digu Kontxik. Gainera, matematika liburutik egiteak beste eragozpen bat baduela uste du: "Oso bideratuta egoten dira eta proiektu jakin batean ari bazara, eta horrekin zerikusirik ez badu, zaila da dena uztartzea".

Bosgarren zatian, gaztelania eta ingeleza landu zituzten. Zuhaitz genealogikoa egin zuten, bai gaztelaniaz, bai ingelesez. Etxeko datuekin bakoitzak bere fitxa osatu zuen eta familia ereduak aztertu zituzten: beste kultura batzuetako kideak dituzten familiak azal-

du ziren eta haien ohiturak eta hizkuntzak ezagutu zituzten. Hori oso aberatsa izan zela esan digu Kontxik.

Azkenik, seigarren zatian, Lehen Hezkuntzakoek autobiografia eta lanen aurkezpena egin zuten. "Kanpora joan eta jendarean egindakoa azaltzeko gai izatea nahi nuen. Baiezkoa eman zuten eta Segurako irakasle batekin hitz egin nuen hara joateko. Beraz, Segurako eskolara joan ginen euren liburuxkak aurkeztera", azaldu digu Kontxik. Segurako ikasleek ere, harra beroa egin zieten eta txisteak, asma-kizunak... prestatu zituzten Zeraingo ikasleak joan zirenerako.

Esperientzia aberasgarria izan zen denentzat. Ikasleek, ongi pasatzeaz gain, asko ikasi zuten eta hasierako beldurrak eta kezak uxatuta, Kontxi oso gustura geratu zen emaitzarekin. Matematika libururik gabe lantzeko aukera badela ikusi zuten guztiek, eta horrela egiten jarraitu dute gaur arte.

elena laiz

Eskola Txikietako prestakuntza arduraduna

ELKARRIZKETA



// Eskola inklusiboa, ikaskuntza kooperatiboa eta konstruktibismoa dira gure hiru oinarriak

elena
laiz



// Eskolan eta gelan denok gara beharrezkoak, elkarri lagunduz, elkarrekin ikasiz, gure gaitasunak eta ezagutza eraikitzeko. Haur guztiek dute ikasteko eskubidea, baina ez edozer gauza ikasteko; benetan oinarrizkoa dena ikasi behar dute, denek(...). Hori lortzeko, ordea, haur guztiak murgildu behar ditugu ikasteko, esperimentatzeko, sortzeko eta ikertzeko giroan, giro alfabetizatuan



Eskola Txikietako irakasleen prestakuntza arduraduna da Elena Laiz Sasiain. Duela bi urte hasi ziren prestakuntza saioak egiten, eta emaitzak oso onak izan dira. Irakasleak mintegietara joaten hasi direnetik, ilusioa topatu dute berriz. Eguneroko lanari buruz eztabaidatzeko eta hausnartzeko txokoa dira mintegiak eta irakasleentzat oso baliagarri da bertan hitz egiten duten guztia. Prestakuntzari buruz eta Eskola Txikietan egiten duten lanari buruz aritu gara Laizekin. Baita *Hizkuntza idatzia. Zenbait ideia eskolarako* argitaratu duen liburuari buruz ere. Izan ere, urtetan zehar ikasi, bizi eta egin duena bertan bildu du, eta hizkuntza idatzia oinarri duen arren, bertan aipatzen dituen alderdi asko eskolako beste edozein eremutan aplikatu daitezke.

Konstruktibismoa, ezagutza eraikitzea, norberaren beharretatik eta interesetatik abiatuta ikastea da. Liburuan aipatzen duzun moduan, eskolako lana eguneroko bizitzara hurbiltzea eta txertatzea, hortik sortzen diren beharrei aurre egiteko... Ikasliburuak alde batera utzita lan egiteko erresistentzia handiak al daude?

Interesa izatea beharrezkoa da, baina oso garrantzitsua da egiten dugun horrek funtzionaltasuna edukitzea, esanguratsua izatea eta orduan ikasteko desioa, interesa edo beharra sortzen da. Funtzionaltasun hori bilatu behar dugu. Eskola Txikietan aritzen garenok pentsatzen dugu ikasliburuak ez dietela gure beharrei erantzuten. Ikasgelan adin aniztasuna dugu, eta ikasliburuak ez diote horri erantzuten. Gainera, ikasliburu batek eskaintzen duen informazioa mugatua eta partziala da. Haurren ikasliburuak benetako testuek izan behar dute, gizartean erabiltzen direnak, egunkariak eta horrelakoak. Eta nola ez, internetetik jaso daitekeen informazio guztia. Uste dut ikasliburuak, irakasleoi gure benetako esentzia lapurtzen digutela, nolabait. Irakasleok ikaslibururik gabe zer egin jakin beharko genuke. Gaur egun informazio asko dago, eta aukeratzea zaila da, baina gure lana da. Irakasleek benetako testuak erabili beharko lituzkete eta irakasleon gida curriculumak izan beharko luke. Dena den, ikasliburu behar duenak erabil dezala, ahal bada era egokian, baina nik uste dut asko mugatzen duela. Irakasleok beste zerbaiterako gaudela uste dut, ez testuliburuak egina-razteko.

Eta haurren interesak kontuan hartzeko borondaterik ba al da?

Baietz esaten dugu denok, nola esango dugu ezetz! Baina, egiten dugunarekin batzuetan ez dugu hori benetan gauzatzen, ez dakit benetan kontuan hartzen dugun. Dena den, haurren interesari buruz ari garela, nik esango nuke bi interes mota daudela: alde batetik, gaur egungo gizarteak eta in-

guruak sortzen, eskaintzen eta bultzatzen dituenak. Horiek aldakorak dira eta garaian garaiak; nire adineko maisu-maistren haurtzaroko interesak ez dira gaur egungo haurrenak. Horiek ezagutu behar ditugu, galdetu egin behar diegu, behatu egin behar ditugu, entzun behar diegu... Eta askotan ez dute zerikusirik eskolan eskaintzen diegunarekin. Besteak, gizakiok betidanik izan ditugun interesak dira, gai unibertsalak, oinarrikoak: bizitza, heriotza, harremanak, natura, arbasoak... Horiek ere haurren interesak dira. Horien gaineko hipotesiak eraikitzea, pentsatzea, hitz egitea, esperimentatzea, bilatzea... bideratu behar dugu. Baina, jakina, hori guztia kontuan hartzeko, irakasleok lan handia egin behar dugu.

Konstruktibismoa aipatzen da, baina zer da konstruktibista izatea?

Batzuetan, konstruktibistak direla esaten dutenak, egiazki ez dira konstruktibistak. Gauza bat da pentsatzen eta esaten duguna, eta beste bat, egiten duguna. Nik inoiz ez dut esan konstruktibista naizenik, ez naizelako. Baina teoria psikologiko hori oinarritzat hartzen dut: haurrak bere prozesua eta ezagutza eraikitzen ditu. Geure ikuspegiari oinarri hori dugu, eta beste bi ere bai: inklusioa eta kooperazioa. Eskola inklusiboa, ikaskuntza kooperatiboa eta konstruktibismoa dira gure hiru oinarriak. Eskolan eta gelan denok gara beharrezkoak, elkarri lagunduz, elkarrekin ikasiz, gure gaitasunak eta ezagutza eraikitzeko. Haur guztiek dute ikasteko eskubidea, baina ez edozer gauza ikasteko; benetan oinarrikoa dena ikasi behar dute, denek. Hori ikasteko, denok gara beharrezkoak. Hori lortzeko, ordea, haur guztiak murgildu behar ditugu ikasteko, esperimentatzeko, sortzeko eta ikertzeko giroan, giro alfabetizatuan, eta ez irakurketa eta idazketari dagokienez soilik. Giro horretan denen ekarpenak, denen pentsatzeko eta argudiatzeko moduak, erantzun anitzak, hainbat erritmo, hainbat pentsamendu, hainbat estrate-



gia agertzen dira, eta denak dira beharrezkoak guztientzat.

Baina irakasleak prest al daude hainbat erritmo errespetatzeko?

Beharretatik ikasten da eta guri Eskola Txikietan hori gertatu zaigu; hainbat adinetara moldatu behar dugu. Denak adin berekoak direnean, aniztasun handia dago erritmo aldetik, erantzukizun aldetik... baina adin desberdinekoak elkartzen direnean, oraindik gehiago. Hori, onura bihurtzen saiatu gara. Uste dugu adin deserdineko haurrak elkarrekin egotea ikasteko erarik onena dela.

Desioak sortzen ikasi eta asmatu behar al du irakasleak? Liburuan, irakurketari buruz ari zarela, irakurtzen irakastea behar edo desio hori sortaraztea dela diozu. Hori arlo guztietarako al da baliagarri?

Irakasleok giro hori bideratzen eta eskaintzen saiatu behar dugu. Gure lana, ikasleen ondoan egotea da. Aurrera egiten lagundu behar diegu, entzun, behatu, atek ireki, estrategia anitzak eskaini, denbora eman, esperimentatzeko aukerak zabaldu... Nik horri deitzen diot desioak sorraraztea. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza amaitzen denean, oinarriko gauza batzuen jabe izan behar dute eta hori guk bideratu behar dugu. Irakurtzen jakitea, adibidez, oso garrantzitsua da, baina benetan irakurtzen jakitea, ez fonemak ahoz esaten. Irakurketari gorrotorik eta beldurrik ez izatea lortu behar dugu. Lehen Hezkuntzaren amaieran hori lortzea, handia litzateke, gauza askotarako prest egongo liratekeelako. Beste oinarri bat, pentsamendu matemati-

koa izatea izango litzateke, problema matematikoak ebazteko estrategiak izatea. Eta beste bat, sormena da. Ez diegu sormena moztu behar, gauzak beste era batera ikusteko ahalmena ez dugu moztu behar. Oso zaila da ikasleak gauza horien guztien zale bihurtzea, baina behintzat, berezkoa dutena ez dugu moztu behar.

Zure liburuan adierazten duzunez, ikuspegi konstruktibistari jarraituz gero, zailtasunak dituzten haurrek ez lukete aparteko arretaren beharrik.

Zailtasunak dituzten haurrek arreta behar dute, gainerakoek bezala. Baina zailtasunak dituztenak besteek baino gehiago murgildu behar ditugu giro alfabetizatu horretan, interesgarria eta motibagarria den giroan. Funtsezkoena ikasteko, gainerakoen beharra dute, eta gainerakoek, haiena. Dena den, zenbait unetan estrategia didaktiko bereziagoak edo egokiagoak erabili behar dira: testu bati ahotsa jar diezaiokogu haiek interpreta dezaten, edo guk grafikatu dezakegu haiek sortzen duten testua... Adibidez, testu luzea denean, guk irakurri beharko diegu, akaso, eta konplexutasun hori lor dezaten lagundu beharko diegu. Guk esaten dugunean, irakaslea edo ikaskideak izan daitezke. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan irakasle guztiak funtsezkoak gara; ez du balio norbait gauza batean espezialista denik esatea. Denon eginkizuna eta ardura da zailtasunak dituzten haurrek funtsezko ezagutzak lortzea.

Agian zailena hori da: guztia, guztion eginkizuna eta ardura dela barneratzea...

Bai. Baina oinarrikoa da. Gure mintegietan ere hori lantzen dugu; denon ardura da ikasle guztiek funtsezko gauza horiek ikastea. Eskolan eztabaiatu behar da, pedagogiaz hitz egin behar da, didaktikaz... beste ezertaz baino gehiago. Baina akatsak daude: goitik datozen hainbeste proiektu, hainbeste agindu, hainbeste paper... ditu-

gu, askotan ez dugula denborarik izaten lankideekin pedagogiaz eta didaktikaz hitz egiteko.

Eskola txikietako irakasleen prestakuntzaz arduratzen zara. Non topatu dituzu zailtasunik handienak?

Prestakuntza hori jasotzen dutenek, ilusioa topatu dute berriro. Mintegietara etortzen dira, eta gero eskolan elkartzen dira, horri buruz hitz egiteko. Jendearen konpromisoa eta ilusioa ikustea, gauza handia da. Denak etortzen dira bileretara eta horrek, elkarrekin egotea eta egiten duguna partekatzea beharrezkoa dugula, elkarrekin ikasi behar dugula adierazten du. Ikasleei buruz esan dugun guztiak guretzako balio du, geuk ere elkarri lagundu behar diogu. Profesional onak izateko, eztabaidatu egin behar dugu, beste batzuen praktika onak ezagutu behar ditugu, geure praktika aztertu... Jendeak, Eskola Txikietan irakaskuntza-ikas-kuntza prozesua arrakastaz garatzeko baldintza onenak ditugula ikusten du, eta profesional onak izateko ikasten segi behar dugula.

Eta zein dira etorkizunera begira dituzuen helburu eta erronka nagusiak? Zein dira prozesu hori hobetzeko gakoak?

Prestakuntza saioak bi urterako diseinatu ziren eta, agian, amaitu egingo dira. Hori gertatzea pena litzateke zeren mintegiek babesa eskaintzen diete irakasleei, talde izaera indartzen dugu eta besteen aurrean geure jarrera defendatzeko argudioak lantzen ditugu.

Hori amaituko balitz, eskola bakoitzean ahal den moduan jarraituko luke lanean, eta irakasleak urtetik urtera asko aldatzen direnez, zailtasunak izango genituzke. Izan ere, irailean etortzen diren irakasle berriek saio bereziak jasotzen dituzte gure lanean murgiltzeko, eta, atal hori ere, egin ga-be geldituko litzateke.

Beraz, jarraipena izan beharko lukeela uste duzue.

Bai. Gainera, hasieran, ardatz gisa hizkuntza idatzia hartu genuen, sekuentzia didaktikoak sortzea eta proiektuak bideratzea. Baina gauza batek bestea eskatzen du, eta iaz matematikaren eskaera sortu zen. Aurten, matematika lantzen hasi gara, eta jendeak jarraitzeko gogoia du. Beraz, datorren urtean prestakuntzarekin jarraitzekotan, hizkuntzarekin eta matematikarekin jarraituko genuke. Bestalde, proiektuak globaliza daitezke, eta horretan sakontzeko aukera ere izango genuke. Dena den, etorkizunean prestakuntza hori amaituko balitz, eskola txikiak taldeka biltzea egokia izan liteke. Arrankudiagan, Zeberion eta Areatzan edo Baztanen egiten duten bezala, adibidez.

Gipuzkoan eta Bizkaian aritzen zarete...

Bai. Gipuzkoan saio gehiago egiten ditugu, baina Bizkaian ere aritzen gara.

Zer ekarpen egiten dute Eskola Txikiek gaur egun? Zer esango zenuke norbait konbentzitu beharko bazenu?

Alde batetik, alde pedagogikoa dago, eta, bestetik, bizipenak. Herriak eskola behar du bizitza edukitzeko, eta eskolak herria behar du. Eskola Txikietako ateak zabalik egoten dira; bai eskola barnean, denek elkarrekin edozer gauza egiteko, eta baita herriari zabalik ere. Harreman handia dugu herriarekin.

Inklusioaz hitz egin duzu lehenago. Nola ari zarete bizitzen etorkinen etorrera?

Oraindik gutxi ditugu. Baina etortzen direnean, ia ez gara konturatu ere egiten, segituan hartzen baitute eskolako erritmoa. Dena azkar ikasten dute, eta, gutxi garez, denbora hartzen dugu eta erabat murgiltzen dira.

Planifikazioaren garrantzia behin eta berriz aipatzen duzu liburuan. Nolakoa behar luke planifikazio on batek?

Ezin da dena planifikatu. Zer testu mota landuko dugun, zer proiektu burutuko dugun, zer alderdi linguistiko landuko dugun aurreikusten dugu... Ondoren sekuentzia didaktikoak diseinatzeko ditugu, zer jarduera egingo dugun, haurrak nola taldekatuko ditugun, gure rola zein izango den... Baina malgutasuna ezinbestekoa da. Guk zer lortu behar dugun aurreikusi behar dugu baina helburua oso sinplea da: egiten dugunarekin gehiago eta hobeto ikastea.

Proiektuetan oinarrituta egiten al duzue lan eskola guztietan?

Ez denetan. Gainera, proiektuei buruz hitz egitean, beti ez da gauza bera adierazten. Guk ikuspegi bat eta oinarri batzuk ditugu. Egokiena zein izango litzatekeen ikusten dugu, eta hori lortzeko zer estrategi eta zer didaktika erabili beharko genukeen. Irakasle gehienoi zerbaitekin hastea errazagoa egiten zaigu: hizkuntzarekin hastea, adibidez, baina, gero, beste gaietan ere gauza bera egin behar dugula konturatzen gara. Kontua ez da derrigorrez dena globalizatuta egitea, baina funtzionaltasuna izan behar du, esanguratsua izan behar du, helburu bat izan behar du eta hori lortzeko proiektua osatzen saiatzen gara, ahal dela eskola osokoa. Denek helburu bera izateak, indarra ematen du, haurrek ere haien artean horri buruz hitz egiten dute, eta badakite amaieran denen artean osatuko dutela. Irakasleei ere, asko laguntzen die zerbaiteko komuna izateak.

Orain kompetentziak bultzatu beharra ikusten da. Nola hartzen duzue zuek hori?

Guretzat ez da salto handia izan. Apaltasunez diogu, baina guk egiten duguna da. Hobeto egin dezakegu, jakina, eta horretarako egiten ditugu prestakuntza saioak, profesionaltasuna hobetu nahi dugulako, baina ez diogu halako beldurrik. Kezkatzen gaituena, egiten duguna gero eta hobeto egitea da.

pt-ak eta kontsultoreak

Ainhoa Basauri, Itziar Mujika, Irantzu Egibar eta Eider Amundarain

ELKARRIZKETA



PT-ekin eta kontsultoreekin solasean

pt-ak eta kotsultoreak



// Ikusi dudan aldaketa handienetako bat da, Altzoren kasuan ikasgelak zikloka antolatuta daudenez, zailtasunak dituztenek epe luzeagoa daukatela beraien erritmoan aritzeko.

Ainhoa Basauri



// Askotan ezina zen gure lanaren ezaugarri nagusia: ikasleak ezin zuen egin eta guk ezin genuen ikusi aurrera egiten zuenik. Baina orain, gauzak aldatu egin dira.

Irantzu Egibar



Eskola Txikietako Formazioaren barruan, Elena Laizekin prestakuntza saio bereziak egiten dituzte PT-ek eta kotsultoreek, eta haiekin izan gara. Mintegietan, benetako arazoak eztabaidatzen eta aztertzen dituzte, horrek asko laguntzen die, eta prestakuntza hori, beste ikastaro batzuetan lantzen dutenarekin osatzen dute. Laguntza espezifiko behar duten haurrak daudenean, Eskola Txikiek berdintasuna bermatzeko aukera handiagoa dutela uste dute. Izan ere, Eskola Txikiek dituzten ezaugarriek, zailtasunak dituen haurra taldetik ez bereizteko aukera ematen dute. Haurra da protagonista eta hortik abiatzen da euren lana. Eider Amundarain, Alkizan eta Albizturren aritzen da lanean, Irantzu Egibar Berrobiko eskolan, Itziar Mujika, Ereñozun, Aginagan, Zubietan eta Adunan, eta Ainhoa Basauri, Alizon. Haien esperientziaren berri eman digute laurek.

Garai batetik hona zuen lanari buruz hausnartzeko hainbat bilera egiten dituzue. Nabaritu al duzue aldaketarik lanean?

Eider: Bai. Lan egiteko era aldatu egin da, eta alde txikiagoa ikusten da zailtasunak dituzten ikasleek eta gainerako ikasleek artean. Ikasle batentzako balio duen ikuspegiak eta lan egiteko metodoak, denentzako balio duela ikusten dugu. Beste erritmo batean, akaso, baina bide bera egiten dute guztiek. Ez dugu ezer aldatzen ikasle batek zailtasunak dituelako, ez dugu beste materialik erabiltzen edo ez dugu beste jarduerarik egiten; prozesua bera da, baina pazientzia gehiagorekin eta haren erritmoa errespetatuz egiten dugu lan.

Hori, ez al da beti horrela izan?

Itziar: Ez. Lehen, bereizi egiten genituen zailtasunak zituzten ikasleak, eta orain ez.

Zuek zer prozesu eraman duzue?

Lehen bakoitza zuen eskolan ahal zenutena egiten zenuten, eta orain, taldea sortu duzue. Zer iruditu zitzaizuen proposamena?

Irantzu: Nik oso gustura hartu nuen, horrela egin nahi nuen lan, eta nire kezkak eta zalantzak jende gehiagorekin partekatu nahi nituen. Lana ere suposatzen zuen, batzuetan aldatzea asko kostatzen delako.

Ainhoa: Nik HUBEZIn ikasi nuen, eta ikasitakoa, bat zetorren gutxi gorabehera horrekin guztiarekin, baina handik atera nintzenean, joan nintzen eskolan nire ezagutzak pixka bat zapalduta geratu ziren. Aurten, Alizon nago, beste ikuspegi bat dago eta asko poztu nintzen.

Irantzu: Topagune honek hainbat estrategia ezagutzeko aukera eman digu, gauzak bideratzeko eta ideiak hartzeko aukera.

Ainhoa: Batzuetan horretan ni bakarrik nabilela sentitzen nuen, eta orain beste zerbait da. Kasuak gure artean alderatzen ditugu... Oso praktikoa da.



Itziar: Zalantzak argitzeko oso baliagarria da.

Proiektuka lan egitea izan al da aldaketa nagusia?

Itziar: Bai. Baina horrez gain, lehen zailtasunak azpimarratzen ziren behin eta berriz, eta orain zailtasunak hor daude, baina laguntza ematen diegu, haurrei lasaitasuna eta konfiantza ematea baita gakoa. Hausnartzen lagundu behar diegu: zer egiten duen gaizki, zer kostatzen zaion, zer hobe dezakegun...

Eider: Lehen, zailtasunak zeudenean, fitxak egiten ziren zailtasun horri aurre egiteko, eta bide horretan, frustrazioa zegoen, ikasleak gaizki sentitzen ziren... Orain, beste era horretara, irakasleen papera ere aldatu egiten da, laguntzaile rola hartzen du.

Gelan, beste ikasleekin eta irakasleekin batera egoten al zarete?

Ainhoa: Bai. Gelan bertan egoten gara. Laguntza espezifiko behar duen pertsonaren bat baldin badugu, nirekin 45 minutuko saio txiki bat egiten du, baina, bestela ez da gelatik irteten. Beste guztia gelan bertan egiten du gainerako ikasleekin eta, nik, PT moduan, eta gainerako irakasleek laguntza eskaintzen diogu. Ikusi dudana aldaketa handienetako bat da, Altzoren kasuan ikasgelak zikloka antolatuta daudenez, zailtasunak dituztenek epe luzeagoa daukatela beraien erritmoan aritzeko.

Taldekatze horrek laguntzen du,

beraz.

Ainhoa: Bai. Aniztasun handiagoa dagoelako. Ikasleen erritmoa desberdina da beti, eta antolaketa horrekin, erritmoak are anitzagoak dira. Talde txikian egiten dugu lan eta bi irakasle egoteak, asko laguntzen du.

Eider: Beste irakaslearentzako laguntza bihurtzen zara. Zailtasunak dituen ikasleari laguntzen diozu, beste ikasleei laguntzen diezu eta tutoreari ere bai.

Itziar: Zailtasunak dituen haur horren erreferentia tutorea da, bestela PT-a izaten da soilik bere erreferentia. Dena den, gela barnean bi irakasle daudenean ongi planifikatu behar da bakoitzak zer rol duen. Irakasleek aniztasunari aurre egiteko estrategiak hartzen dituzte eta geure papera pixka bat malgutzen da, beste gauza batzuk egiteko aukera dugu. Jarraipen orokorra egiten dugu, ez soilik laguntza behar duen ikasle horrena.

Beraz, zuen lana asko aldatu da.

Irantzu: Lehen fitxa asko ematen genizkien. Ez ginen konturatzen era horretara ez zutela aurrera egingo eta ikasleak ariketa horien aurrean hartzen zuen jarrera ez zen egokiena. Lasai uzten baduzu, ordea, aurrera egiteko motibazio handiagoa du. Ez du urduritasun hori, ez du aurrera egin ezin duenaren sententziarik.

Itziar: Aurrera egingo duela pentsatzen du, ez ezingo duela.

Irantzu: Eta ezin duela ikusiz gero, beste era batera saiatzen gara. Gustura egiten dituzten lanak izaten dira normalean. Ez da soilik zailtasunak kentzea, baizik eta lana gustura egitea.

Eta errazago egiten al duzue lan?

Irantzu: Bai. Askotan ezina zen gure lanaren ezaugarri nagusia: ikasleak ezin zuen egin eta guk ezin genuen ikusi aurrera egiten zuenik. Baina orain, gauzak aldatu egin dira.

Eman dezagun, laugarren mailan irakurketa-idazketa prozesuarekin zailtasunak dituen ikasle bat

duzuela eta era batera edo bestera, esku hartu behar dela.

Horrelakoetan, zein da zuen egitekoa?

Itziar: Izan ditugu horrelako kasuak, eta gu ikasle horren idazkariak izan gara horrelakoetan. Negoziatu egin behar da apur bat: "nik irakurriko dut pixka bat eta gero zuk irakurriko duzu beste pixka bat", esanda, esate baterako. Gure egitekoa, ikasle horren prozesua erraztea da. Idazketarekin ere antzera; idaztea asko kostatzen bazaio, ordenagailuz idatz dezake edo guk idatzi bere testua eta berak kopiaitu...



Eider: Eta, agian, berak idatzi nahi duela esango dizun ueña iritsiko da. Niri gertatu izan zait horrelakorik. Uneren batean, akaso, bere burua idazteko prest ikusiko du. Eta, badaki, ezin badu edo zailtasunak baldin baditu, zuk lagunduko diozula.

Eta arazoa sakonagoa baldin bada?

Irantzu: Bada, adibidez, idazketa lantzeko garrantzitsua da zerbaitetarako balio duten idazkiak lantzea. Egiten dutenak, zerbaitetarako balio behar du; lehen egiten ziren esaldien kopia haiek ez dute balio.

Ainhoa: Eta matematikan ere gauza bera. $2 + 3$ batuketa egiteko, esaterako, estrategia jakin bat lantzen duzu, baina ikasleak zertarako den ez badaki, agian ez dio zentzurik ikusiko. Hori dela eta, garrantzitsua da dena manipulatu bati lantzea. Horrek eragiketa bati zentzua topatzen laguntzen die.

pt-ak eta kontsultoreak

E

// Itxaropen handia izaten dugu haurrengan. Haiei autoerregulatzen erakusten diegu. Autonomoak izan daitezen lortu nahi dugu.

Itziar Mujika

// Eskola Txikietan, gelak anitzagoak direnez, ikasleen arteko aldeak ere gutxiago antzematen dira. Eta gurasoentzat hori garrantzitsua da.

Eider Amundarain

Eider: Bai, beharrezkoa da egiten duguna funtzionala izatea. Adibidez, eskutitz bat idaztean, ikasleak diktaketa egiten badu eta guk idazten badugu, guk idatzi arren, ikaslea testuaren jabea sentitzea. Nik lehen, ikasleak esandakoa idazten banuen, ez nion esaten testu hori berea zenik, baina, orain, berak idatzi duela sentiarazten diot.

Egiten denak funtzionaltasuna izan behar duela esan duzue. Adibiderik jarriko al zenukete?

Ainhoa: Horrelako mementoetan estrategiak erabili behar dira. Batzuetan, matematika egin behar denean, adibidez, matematikako ariketak bideratzeko idazketarekin eta irakurketarekin sartzten gara. Beste zerbait eskain diezaiokegu, eta bere interesak zein diren jakin behar da nondik norajoko behar dugun jakiteko.

Itziar: Edo ikasleren bat zerbaitean oso ona dela baldin badakigu, laguntza eska diezaiokegu, adibidez, Haur Hezkuntzan prestatzen ari diren antzerki batean laguntzeko. Eta beste ikasle batzuek ere esku har dezakete horretan.



Irantzu: Berrobin, adibidez, "Lurbira" izeneko proiektua egin dugu lehen hiruhilekoan eta 3 eta 12 urte bitarteko haurrek parte hartu dute. Bakoi-tzak ahal duen ekarpena egin du. "Lurbira", Agenda 21 eta ekitatea lantzeko aukeratu genuen eta azalpen testua landu behar genuenez, munduan bar-

na ibili diren pertsonak eta hainbat herrialdetatik etorritakoak izan genituen gurekin. Eskolan Brasilgo haur bat dugunez, handik abiatu ginen. Ama etorri zen eta bere herria nolakoa den kontatu zigun; herria, eskola, ohiturak... Zailtasunak zituzten haurrek gainerakoek bezala hartu zuten esku proiektuan.



Ainhoa: Bai. Horrelakoetan, gauza batean ez bada, beste batean hartuko dute parte. Ekintza horietan denek egin dezakete zerbait, lana bana daitekeelako.

Irantzu: Haien erritmoa errespetatuz, aurrera egin behar da. Beti aurrera eginez, eta ahal den neurrian, hobetuz.

Laguntza, behar espezifikoak dituzten haurrei soilik eskaintzen al diezue?

Itziar: Nik uste dut haur guztiek behar dutela laguntza momentu batzuetan. Batzuek iraunkorki, eta, beste batzuek kasu zehatz batzuetan.

Eider: Gelan egonda, errazagoa da denei laguntzea. Ikasleen prozesua bertatik bertara ikusten duzu eta norbaiti laguntza eskaini behar badiozu ere, errazagoa da. Zailtasunak dituen ikasle baten kasua ez zaizu bat-batean iristen, aurretik ere ezagutzen baituzu. Barruan zaude eta dena ikusten duzu.

Eskola Txikia izateak laguntzen al du?

Ainhoa: Bai, asko. Dena oso dinamiko da eta horrek haurrari asko la-

guntzen dio.

Itziar: Berdinen arteko tutoretzek ere asko laguntzen dute horretan. Haur batzuk irakasle paperean jartzeak asko laguntzen du. Ni haur guztiei laguntzen saiatzen naiz, denek laguntza behar dutela ikus dezaten. Eta guk ere laguntza behar dugu. Niri, adibidez, oso ongiritzen zait irakasleok ere haurrek egin behar dutena egitea; ipuin bat idatzi behar badute, nik ere egiten dut eta idaztea kosta egin bazait, edo gogorik ez badut izan... hori aztertzen dut. Haien lekuan jartzeak asko lagundu dit.

Irantzu: Bai. Gu haien ondoan egoten gara, ikaskuntza prozesuan laguntzaile gisa, baina haien kideak ere bagara.

Zer aldaketa ikusi duzue ikasleengan?

Eider: Nik uste dut dena aldatu dela. Zailtasun batean pentsatzen ari bazara, haur horrentzat zeinen zaila izango den pentsatzen arizara, eta, aldatzen duzunean, haurra aurrera doala ikusten duzu eta zerbaitetan agian ez dabilela ongi, baina beste gauza batzuetan aurrera egiten ari dela. Izan ere, azke-



nean, denok ez dugu gauza guztietarako berdin balio.

Ainhoa: Nik uste dut autonomia handiagoa lortzen dutela. Lehen beti zailtasunak zituzten ikasleen ondoan egoten ginen, baina orain gertu egoten gara, autonomia hori hobeto lantzen laguntzen baitu.

Itziar: Itxaropen handia izaten dugu haurrengan. Haiei autoerregulatzeko erakusten diegu. Autonomoak izan daitezten lortu nahi dugu.

Eta gurasoekiko harremana aldatu al da?

Ainhoa: Eskola Txikietan familiekin dugun harremana estua izaten da. Zerbait egin behar bada, komunitatearen esku hartzea eskatzen duen ekintza osagarriren bat egin behar bada, prest egoten dira esku hartzeko.

Eider: Gainera, nik ikusi izan dut eskola handiagoetan, agian, zailtasunak dituzten haurrak ez daudela hain integratuta. Ikasle baten amak, esaten zuen, haurra askoz ere integratuagoa ikusten zuela gure eskolan eskola handira zihoanean baino. Han jolasorduan beste batzuekin jolastera ere ez zela ausartzen eta hemen bai. Han bereziagoa sentitzen zen. Baina, Eskola Txikietan, gelak anitzagoak direnez, ikasleen arteko aldeak ere gutxiago antzematen dira. Eta gurasoentzat hori garrantzitsua da.

Ainhoa: Proiektuetan oinarritutako ikaskuntzan harremanak asko sendotzen dira.

Itziar: Gainera, guk itxaropen handia dugunez, gurasoei ere gauza bera transmititzen diegu.



Nafarroa Oinez 2009, Etxarri Aranatz Txikiak handi garelako eta direlako

Txikiak izanda ere, sendoak gara, indartsuak eta etorkizun handikoak. Mezu hori lau haizeetara zabaldu nahi du aurtengo Nafarroa Oinez jaiak. Txiki indartsuen bozeramaile izan nahi dute, eta Argiñe ipurtargiak lan horretan lagunduko die, urriaren 18ra bitartean. Bidea argituko du Argiñek; txikien handitasuna Europan barrena harro aldarrikatuko du. Katalunian eta Aragoian izan da orain arte, baina Galiziarra, Britainiara, Okzitaniara eta Galesera joatekotan da. Hizkuntza gutxituen arteko sarea osatuz, Etxarri Aranatzik abiatuta, armiarma lana egiten ari da ipurtargia Europan barrena.

Nafarroa Oinez aldarrikapenerako gune izan dadin nahi dute Etxarri Aranatzko Andra Mari ikastolakoek, eta ez soilik dirua biltzeko jai. Festa antolatzea egokitu zitzaienean, Europako hizkuntza gutxituen arteko sarea osatzen joatea bururatu zitzaien.

Andra Mari ikastolako Muxi Mariñelarena zuzendariak eta Marta Igoak, Andra Mari Ikastolako Nafarroa Oinezko koordinatzaile nagusiak, azaldu digutenez, euskara eta euskal kultura sustatzea ere Nafarroa Oinez egitekoa da, eta jai bera eta euskara Euskal Herritik kanpora ezagutarazi nahi dituzte, munduari hemengo errealitatearen eta egiten den lanaren berri emateko. Alde batetik, Nafarroa Oinez web orrian katalanari, galizierari, bableari, aragoierari, okzitanierari, bre-

toierari, alsazierari, frasierari, galeserari, gaelikoari eta eskozierari buruzko informazioa bildu zuten. Hitzen bidaldia izeneko atala ere zabaldu zuten web orrian, eta hainbat idazlek munduko hizkuntza gutxituei buruzko ipuinak idatzi dituzte han, Muxik azaldu digunez: “Munduko hizkuntza gutxituen egoera nolakoa den ikusteko leiho txiki bat da”. Bestetik, hizkuntza gutxituak dituzten herrialdeekin harremanetan jartzea pentsatu zuten, sare sortzea, aldarrikapenean elkarrekin aritzeko. Behatokiaren bidez hainbat harreman egin ondoren, lanean hasi ziren. Esperientzia politak izan dituzte orain arte Katalunian eta Aragoian, eta uda bitartean Galizian, Britainia, Okzitanian eta Gales bisitatzeko asmoa dute. Bestalde, Nafarroa Oinez egunerako herrialde horietako ordezkariak gonbidatuko dituzte,

gure egoera bertatik bertara ezagutarazteko.

Herrialde horiekin harremana sendotu nahi dute, eta zubi egonkor bat ezarri, Muxik esan digunez: “Nafarroa Oinez jaiak duen oihartzuna aprobetxatuz, hizkuntza gutxituen eta gutxiagotuen errealitatea kaleratu nahi dugu, jendeak, hizkuntza horien atzean kulturak eta herriak daudela, horietako asko gainera, desagertzeko zorian, kontzientzia har dezan”. “Aragoiko Nogara elkartarekin harremanak izan ditugu, eta laguntza eskatu digute, aragoierak ez duelako inolako estatusik. Sinadura bilketa antolatu dute, eta laguntza eskatu digute. Gure sarea ireki dugu, eta haieilaguntzesaiaituko gara”, gaineratu du Martak.

Katalunian, berriz, irakaskuntzaren esparruan aritu dira, eta harreman ga-



Muxi Mariñelarena Andra Mari ikastolako zuzendaria eta Jordi Pujol Kataluniako Generalitateko presidente ohia.

rrantzitsuak eta ekarpen handiak egin dituzte. Haiek gure egoera gertuagotik ezagutu dute, eta guk haiena. Muxik bestelako ikuspegia ekarri du handik: “Kataluniara joan aurretik katalana erabat normalizatua zegoen hizkuntza zela pentsatzen genuen. Baina bidaiaria horretan hainbat erakundetako, elkartetako, fundaziotako, sindikatutako, eskoletako... ordezkariekin bildu ginen eta denek, azaldu zuten katalanaren gaur egungo egoerarekiko kezka. Azken 30 urtetan katalanaren normalizazioaren alde lan asko egin den arren, ez da oraindik erabateko normalizaziorik lortu eta gizartean gertatzen ari diren aldaketek esku-hartze bereziak eskatzen dituztela pentsatzen dute. Adibidez, iristen ari diren etorkinen integratzeko neurriak hartzea, edota murgiltze linguistikoan antzemandako hutsuneei aurre egitea, hizkuntza, kohesio sozialerako objektu gisa hartuz, eta katalanez komunikatzeko behar soziala sortuz. Euskal Herrikoa eta Katalunian oso egoera desberdinak dira eta bai batean nola bestean hizkuntzaren normalizaziorako eman beharreko urratsak ere, bakoitzak duen egoerari egokitu behar zaizkio. Hala ere, Katalunia, pauso bat aurrera doanez, kontutan hartu beharreko erreferentzia izan daiteke guretzat. Euskal Autonomi Erkidegoan murgiltze linguistikoa indartu



Argiñe munduan zehar ibili da bere mezua zabaltzen. Goiko irudian, Zaragozan ikus daiteke.

beharko litzateke. Nafarroako Foru Erkidegoan eta Iparraldean, egoera larriagoa da, lurralde historiko horietan euskara ez baitago hizkuntza propio gisa onartua”. Martak, ildo beretik hitz egin du: “Nafarroako Euskararen legeak ez du nafarren eskubiderik bermatzen. Hizkuntza baten biziraupena, hizkuntza horrek gizartean eragiten duen beharraren baitan dago. Beharrak sortzea administrazioari dagokion aferara da baina, tamalez, Nafarroan ez dugu halakorik. Are gehiago, ahalik eta traba gehien sortzen saiatzen dela esan liteke. Azken urteotan D ereduak gora egin badu, ikastolek sortutako presioari esker izan da, baina ezin uker daitezkeen Euskararen Legeari esker, gaur egun Nafarroako hainbat tokitan euskaraz ikastea ezinezkoa da. Halaber, “eremu mistoa” deituriko zonaldeetan D eredu aritzea ere ez dago, inolaz ere,

bermaturik. Gauzak horrela, bertakoak euskalduntzeko eragoztearen saiakera etengabea, pentsa nola jokatzeko den etorkinen egoerarekin. Andra Mari ikastolak dituen bitartekoak, ilusioa eta denbora eskaini izan dizkio gure ingurunean integratu nahi izan duen orori. Hala beharko luke ikastetxe guztietan, administrazioa lagun izanik, jakina. Errealitatea, aldiz, oso bestelakoa da. Etorkinei ez zaie euskararen beharra sentiarazten eta gaztelaniazko eredu-tara bideratzen dituzte.”

Arazoak arazo, lanean gogor segitzeko asmoa dute, eta haiek hasitako lanek datozen urteetan jarraipena izatea gustatuko litzazieke. Hurrengo Nafarroa Oinezek horri eustea eta josten hasi diren sare hori gero eta handiagoa eta sendoagoa izatea nahiko lukete, edozein hizkuntzaren atzean herri bat, kultura bat eta historia bat badirela ahantz ez dadin.

40 urteren ondoren, eraikin berria

Aurten 40 urte beteko ditu Etxarri Aranazko Andra Mari ikastolak, baina ez dute eraikin propiorik, ez eta egokirik ere. 420 ikasle ditu ikastolak, eta jada ez dira han sartzen. Liburutegian edota laborategian ematen dituzte eskolak, ez da irakaslearen gelarik; patiorik ez dutenez, atsedendietan kalera irteteko errepidea mozten dute eguraldi ona egiten duenean, hesi arkitektonikoak dituzte... Pilotalekua atsedendietarako eta soin hezkuntzako saioetarako erabiltzen dute, eta atsedendia etapa egiten dituzte, bestela ez direlako sartzen. Irakasleek sarrerak eta irteerak, ordutegiak eta ekintzak koordinatu egin behar dituzte, ikasle guztiak pila ez daitezela, toki falta handia dutelako. Oraindik ez dakite eraikin berria noizko egingo duten, ez eta non egingo duten ere, baina gauza bat argi dute: eraikina haien beharretara egokituko da, energia berri-errespetatuz kontuan hartuko dituzte, eta ingurunea errespetatuz eraikiko dute.

Herbehereetako Hezkuntza Sistema

ERKIDeko, Hezkuntza Kooperatiben Federazioko, 26 kide egon berriak dira Herbehereetan (Holandan), bertako Hezkuntza Sistema ezagutzen. Hainbat eskola ikusi dituzte, eta, hezkuntza ministeritzako kideek hango sistemaren antolaketa eta funtzionamendua aurkeztu dizkiete zenbait hitzalditan.

Herrialdearen ezaugarriak

Herbehereetako eremua Euskal Herriaren bikoitza da (41.500 km²). Biztanleria, berriz, bost aldiz handiagoa da (16 milioi). Horrek, oso herrialde populatua dela adierazten du.

Estatuaren hiriburua Amsterdam bada ere, Gobernu eta ministeritzak Haga (Den Haag nederlanderaz) hirian kokatuta daude. Mundu osoan hain ezaguna den Hagako auzitegia, bertan da.

Hiru milioi pasatxo inmigrante, biztanleriaren ia % 20a, daude Herbehereetan. Erdiak, joan berriak dira (lehen belaunaldikoak), eta, beste erdiak, bertan jaioak (bigarren belaunaldikoak).

Etorkin gehienak turkiarrak (% 22), surinamdarrek (% 21), marokoarrak (% 20), Holandarren Antillarrak (% 8), eta beste hainbat, haien kolonietatik joandakoak dira.

Ikasleen sorlekuari buruz ari direnean, autoktonoak (bertakoak) eta aloktonoak (kanpotik etorritakoak) terminoak erabiltzen dituzte.

Hezkuntza Sistemaren ezaugarriak

Hezkuntza Ministerioak ildo orokorrak ezartzen ditu: legeak arautu, diruz hornitu eta jarraipena egin. Hau da, Gobernuak ZER lortu behar den diseinatzen du eta horretarako behar diren bitartekoetaz arduratzen da.

1) Legeak arautu:


- Eskolak sortzeko bete behar diren baldintzak ezartzen ditu.

- Irakasleak izateko betebeharrak finkatzen ditu.

- Ikasleek 12 urterekin lortu beharreko oinarriko curriculum zehazten du, 58 helburu orokor jarriaz.

2) Diruz hornitu:

Printzipioz, derrigorrezko hezkun-




tza doakoa da denentzat (4-18 urte).

- Ikasle bakoitzari zer diru kopuru dagokion finkatzen du. Une honetan, kopuruak borobilduz, horrela litzateke: 4.000 euro Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasle bakoitzeko, 6.000 euro Bigarren Hezkuntzakoentzako, eta behar bereziak dituztenentzako hiru aldiz gehiago ikasleko.

- Irakasle guztiek tratamendu bera jasotzen dute. Oinarria bera da denentzat, aintzinasuna kontutan hartzen da eta 45 urtetik gorakoek gain finantzaketa berezia dute.

Herbehereetako Hezkuntza Sistemaren antolaketa



- Eskola bakoitzak administrazioetik ikasleen finantzagatik jasotzen duen diruaren % 80-85 irakasleen soldatetan inbertitzen dela esan liteke, eta, gainerakoa funtzionamendurako gastuetan.

3) Jarraipena egin:

- 12 urterekin, CITO deitzen den estatu azterketa pasatzen dute ikasle guztiek. Ebaluazio-proba hori, administrazioetik kanpokoa den institutu independente batek egiten du. Emaizak, publikoak egiten ditu, interneten zintzilikatuz eta herritar guztien eskura jarritz.

- Ikasle bakoitza neurtzeko, CITO azterketaz gain, eskolak ikasle bakoitzari buruz egiten duen balorazioa kontuan hartzen da, eta bien batez bestekoa egiten da.

- Horren guztiaren emaitzak ondorengo ikasketen aukera asko baldintzatzen du, Bigarren Hezkuntzako hiru ibilbide baitaude.

- Emaizta baxuak dituzten ikasleek inspektzioaren jarraipen zuzena jasotzen dute, haientzat bitarteko bereziak jarritz. Hala ere, hobekuntzarik ez

badute lortzen, neurri sakonagoak hartzen dira, zentroa itxi litekeelarik.

- Inspektzioaren egiteko nagusia, eskolen jarraipena egitea eta hobekuntzan eragitea da.

- PISA eta beste nazioarteko neurketen jarraipena ere egiten du. Ohartu direnez, CITO eta PISA emaitzen artean erlazio nahiko zuzena dago.

Ikastetxeen egitekoa

Autonomia eta malgutasuna dira ezaugarriak nabarmenenak.

Ikastetxe bakoitzak behar dituen langileak kontratatzen ditu, hezkuntza proiektua finkatzen du, curriculum zehazten du, metodologia garatzen du, eta bitartekoak eskuratzen ditu. Hau da, legeak ezartzen duen ZER hori, NOLA lortu zehazten du eta praktikara eramaten du. Betiere, eskolak eta bere auzoak, herriak edo inguru hurbilak dituzten beharrei eta lehentasunei ahalik eta egokien erantzun nahian.

Herritarren eskubidea

Neska-mutilak zer eskolatara bidali etxekoek erabakitzen dute.

Une honetan, ikastetxeen % 33 publikoa da, udalena ia guztiak. Udalak, askotan, partaide izanik ere, Fundazio baten esku uzten du eskolaren kudeaketa. % 66 eskola "espezialak" edo ekimen sozialekoak dira; sortzeko iniziatiba, herritar taldeetatik, kongregazioetatik edo fundazioetatik etor daitekeelarik. Eta, ia % 1 pribatuak edo bereziak dira.

Bigarren Hezkuntza egiteko hiru aukera

LHko 8 ikasturteak amaitu ondoren, CITO azterketa egiten dute. Eskolak, ikasle bakoitzari BHko zein ibilbide egin aholkatzen dio. Eta, azken erabakia, gurasoek hartzen dute:

- 1) Lanbide heziketa (4 urte),
- 2) Goi mailako orokorra (5 urte)
- 3) Unibertsitate aurrekoa (6 urte)



Hainbat eskolatan ezagututakoa

Zuidwalschool Haur eta Lehen Hezkuntzako zentroa

Ikastetxearen ezaugarriak

- Haga hiriaren erdigunean kokatuta dago, etorkinen auzo batean.

- Udalaren eskola da.

- Guztira, 230 ikasle ditu, ia 30 herrialdetakoak. Duela 25 urte ikastetxe horretako ikasle guztiak bertakoak ziren, baina etorkinen kopurua izugarri handitu da.

- Lehen Hezkuntzako ikastetxea bada ere, 2 urte eta erdi eta 12 urte bitarteko ikasleak hartzen ditu.

- 2 urte eta erditik 4 urtera bitarteko ikasleak nederlanderara murgiltzeko erabiltzen da, batez ere. Bertako hizkuntza irakastea da helburu nagusia.

- 35 langile irakasle ditu. Horietako batzuk dedikazio osoa dute eta beste batzuek, orduakoa.

- Gobernutik eta udaletxetik jasotzen ditu dirulaguntzak. Duela bi urtera arte ikasle kopuruaren arabera jasotzen zuen dirua. Orduetik hona, ordea, behar bereziak dituen eskola izateagatik, gurasoen hezkuntza mailaren arabera jasotzen du laguntza. Horren arabera, diru gehiago jasotzen du eskolak, auzo horretan gurasoen maila baxua delako.

Ikastetxearen antolaketa

Langileen egitura:

- Zuzendaria.

- Ziklo bakoitzeko (3 ziklotan dute banatua) koordinatzaile bana.

- Irakasleak.

- Proiektu bereziak eta behar bereziak dituzten ikasleentzat beste irakasle batzuen laguntza dago.

Ikasturtearen iraupena:

- Urtean 40 aste: abuztuan/irailean hasi eta ekainean/uztailean amaitu.

Ordutegia:

- Goizeko 08:30etik 15:00etara.

- Asteazkenetan: 08:30etik 12:00etara.

- Ez dago jangelarik. Etxera doaz bazkaltzera.

- Eskola orduetatik kanpo ikasleek hiru aukera dituzte:

1) Etxera joatea.

2) Auzoan antolatutako zaintza edota hainbat ekintza garatzen dituzten zentroetara joatea.

3) Eskolak berak orduz kanpo antolatzen dituen hainbat jardueratan (esku lanak, kirolak, informatika, legoekin jolasak...) parte hartzea, betiere, eskola bereko irakasleen ardurapean.

Ikastetxearen egokitzapena

Ikastetxearen egitekoa auzoak eta ikasleak dituzten beharrei erantzutea da. Zentzu horretan ulertu behar dira eskolan hartzen diren hainbat erabaki:

- Nederlanderara irakastea da helburu nagusia. Horregatik, hizkuntza lantzeko, hainbat ikasle gela arruntetatik irriten dira errefortzu saioetara.

- 3. mailan (6 urterekin) irakurketa

prozesuan hasten dira, nahiz eta aurretik urrats batzuk ere eman.

- Ingelesaren irakaskuntza 7. mailan hasten da. Hau da, 10-11 urterekin. Ohikoa da txikitatik etxean ingelesezko telebista saio asko ikustea.

- Garai batean eskolan bertan ikasleen ama-hizkuntza lantzen bazuten ere, azken urteetan hori kendu egin dute.

Behar berezia duten ikasleak

- Behar bereziak dituzten ikasleei ikastetxean bertan ematen zaie laguntza, nahiz eta batzuetan, zentro espezi-fikoetara bideratu. Bertan, denboraldi batean egon, eta gehienetan, lehengo eskolara itzultzen dira.

Lehen eskola berezietan egoten ziren ikasle horiek. Orain, Herbehereetan, gurasoek erabakitzen dute behar berezia duen seme-alaba eskola arruntera ala berezira bidali. Ikasle horiek finantzaketa berezia jasotzen dutenez, eskola arruntekoek nahi izaten dute bertan eskolatzea, baita hezkuntza hobetzen delako ere.



“Actionlabs” metodologia

Zuidwalschool eskolaren metodologia tradizionala bada ere, duela 10 urte 7. eta 8. mailetako ikasleekin (11-12 urte) “Actionlabs” izeneko tailerra erabiltzen hasi ziren. Hagako 15 ikastetxean ari da funtzionatzen gaur egun.

Tailer horretan, proiektuak binaka landuz, eta astean 45 minutuko bi saio eginez, 10 asteko epean emaitza zehatza lortu behar dute. Modulu bakoitzean taldekidea aldatu behar dute. Lantzen dituzten moduluak hauek dira:

- Neurketak eta lanak (sukaldea tesuinguru gisa hartuta).
- Audio lanak (irradi programa egin).
- Bideoen sorkuntza (film laburra).
- Aerodinamika (kotxe aerodinamiko egin behar izaten dute).
- Segurtasuna etxean (etxean egin daitezkeen konponketak ikasten dituzte: entxufeak konpondu...)
- Osasuna eta Prestakuntza fisikoa (bihotz taupadak kontrolatu, tentsioa hartu...).

- Bigai sozial: harremanetarako gaitasunak, lagunartea eta talde lana. Sentimenduak, emozioak ezagutzea...

Zer lortu nahi da?

Modulu bakoitza hasi aurretik irakasleak edota “liderrak” azalpenak ematen ditu. Hortik aurrera, bikote bakoitzak era autonomoan egin behar du lan. Irakasleak lanen kontrola egiten du, eta, ikasleei, behar dutenean, laguntza eskaintzen die.

Horrela, “ikasten ikasi”, “egiten eta ekiten ikasi” eta “elkarrekin bizitzen ikasi” konpetentziak lantzeaz gain, Bigarren Hezkuntzan dituzten ibilbideak aukeratzeko ere baliagarriak gerta daizkie. Izan ere, ikasleek ikus dezakete zein lan mota duten gustuko, zer interesatzen zaien gehien... Horrela lan egiteak, ikasle bakoitzaren motibazioa sustatzen eta autoestimua indartzen laguntzen duela uste dute.



Supergaituentzako eskolak

Orain arte, ezer gutxi landu da arreta berezia behar duten adimen handikoekin edo supergaituekin.

130 baino inteligentzia maila altuagoa duten ikasleetatik %16 soilik omen doa unibertsitatera Herbeheretan. Eskolan aspertu egiten dira eta “deskonektatu” egiten dute. Ondorioz, emaitza kaskarrak lortzen dituzte.

Egoera horren aurrean, duela bi urtetik hainbat “LEONARDOschool” antolatu dituzte. Eta, supergaituak eskola arruntan edo halako eskola berezietan eskolatzea gurasoen esku dago.

Behetik gorako metodologiaren orde, goitik beherakoa erabiltzen dute. Horrela, ikasleen sormena handiari, motibazioari, euren galderei eta ikasi nahi izateari hobeto erantzutea espero dute. Oraingoz, gustura daude.



Zer egin daiteke eskolan ikasleen autokontzeptu fisikoa lantzeko



Gure kulturean egun zabaldua dauden estetika ereduak presio negatiboa eragiten dute autokontzeptu fisiko egokia garatzeko. Eragin kaltegarri hori nerabeen gizataldean nabarmentzen da bereziki. Dena den, eskolatik eragin horri aurre egin dakioke, baliabide eta neurri egokiak bideratuz. Era horretan, autopertzepzio fisiko egokia eraikitzen lagunduko diegu ikasleei.

Gorputza onartzeko zailtasunak eta elikatze portaeren nahasteak

Jende ugari du bere gorputza onartzeko arazoa, asko dira euren buruarekin pozik ez daudenak. Izan ere, gure gizartean gorputz lirain eta argalaren eredu nagusitu da. Argaltasuna, arrakasta, edertasuna, autokontrola eta beste zenbait ezaugarri positiboekin lotzen da. Komunikabideek etengabe zabaltzen dute eredu hori. Baina eredu hori lortzea (maila gorenean behintzat) ia ezinezkoa dela esan daiteke. Jende-



**ALFREDO GOÑI
GRANDMONTAGNE**

EHU-UPV-KO HEZKUNTZAREN
PSIKOLOGIA KATEDRADUNA

ak bere gorputzaz duen irudia aipatutako eredu perfektu horrekin erkatzen duenean, maiz, nahigabea eta atsekabea sortzen zaio, herstura, eta fisikoki aldatzeko neurri kanpoko gogoak. Egoera horretatik elikatze portaeran nahasteak sortzera jauzi oso txikia da-

go. Bide horretan hainbat urrats ematen dituzte: nahita botaka egin, diuretikoa eta lasaigarriak hartu, neurri kanpoko jardura fisikoa egin... eta zenbait kasutan (anorexia, bulimia) haien osasun fisikoa eta psikologikoa arriskuan jartzera iristen dira.

Jatorri ugari izan ditzake desoreka horrek: komunikabideen eragina, pertsona kuttunak eta esanguratsuak (familiakoak, adiskideak...), amak bere gorputzarekiko duen atsekabea, sendiak jardura fisikoa egiteko duen ohitura, neurri kanpo argaltzea eskatzen duten zenbait kirolen ezaugarriak...

Arrazoi horiek guztiak jarraitzen duten heinean, gaixotasunak ere irauteko joera izaten du. Izaera soziokulturala duten arrazoi horiek ezabatzea zaila den neurrian, nekez egin dakieke aurre elikatze portaerarekin lotutako nahastei.

Autokontzeptu fisikoa eta ezau-

garri soziokulturalen presioa

Fisikoki zaintzera behartzen zaituen publizitatearen eraginpean egon arren, autokontzeptu fisiko altua izan dezakezu. Gure kulturean, edertasun fisikoaz gain, sasoi fisikoa eta kirol gaitasuna ere ongi baloratzen dira. Aldagai horien eraginaz zenbat eta gehiago jabetzen garen, orduan eta autokontzeptu fisiko hobea izango dugu. Beraz, soilik, itxura fisikoa hobetzera bideratutako presio soziokulturala jasotzen dutenek, pairatzen dituzte kalteak. Irizpide hezitzaileen arabera, gainerako ezau-garri fisikoak ere landu beharko lirateke.

Ez dugu ahaztu behar egungo gizartean itxura fisikoak izugarritzko garrantzia duela. Eta bereziki nerabezeroan puzten da alor hori.

Emakumezkoen gaixotasuna?

Ikerketek azaltzen dutenez, % 0,2 eta % 0,8 bitartean kokatzen da anorexia gaixotasuna pairatzen duten herri-tarren portzentaia. Neska nerabeen kasuan zifra hori % 1,3raino igotzen da. Bulimiaren kasuan ere antzeko fenomeno gertatzen da, eta populazioaren % 1,13 eta % 1,20ren artean kokatzen da gaixotasuna dutenen portzentaia.

Patologia horiek ugariagoak dira emakumezkoen artean (bederatzi eta bateko aldeaz). Dena den, esan beharra dago azken urteotan gizonezkoen kopuruak nabarmen igotzen ari direla. Gaixotasun horiek industrializatutako mendebaldeko gizarteetako berezko ezaugarri badira ere, azkenaldian etorkinen artean ere zabaltzen ari dira. Maila sozialari dagokionez, garai batean maila erdi-altukoaren artean nabarmen zela aipatu bazen ere, aspaldian maila guztietara hedatu dela esan daiteke. Beraz, gaitzak zabaltzen ari direla ikusita, garaiz diagnostikatzeko neurriak hartu beharko lirateke.

Ikuspegi klinikoaz gain, hezitzailea

Badira hiru hamarkada psikologia klinikoa gorputz irudiaz (eta bereziki horren nahaste eta aldatzeaz) ardura-

tzen dela. Dena den, azkenaldian, hezkuntzaren ikuspegitik autopertzepzio fisikoak modu egokian eraikitzeak duen garrantziak kezkatutako mugimendua sortu da. Joera hori argitaratu berri den liburu batean azaltzen da: "El autoconcepto físico. Psicología y educación" Piramide argitaletxea, Madril. Lan horren koordinatzailea artikulu hau idazten duen bera da.

Autokontzeptu fisiko onak norberaren itxura fisiko egokiaz gain, eremu fisikoko beste zenbait atalekin du zerikusia: trebetasuna, sasoi, indarra... Pertsonaren autoestimuan arlo fisikoak beti izan du garrantzia, baina orain hobeto ezagutzen dugu nola antolatzen eta garatzen diren autopertzepzio horiek. Badakigu, besteak beste, orohar, emakumezkoek gizonezkoek baino autokontzeptu apalagoak izan ohi dituztela, nerabezero garaian autokontzeptuak krisi sakona ezagutu ohi duela, autokontzeptu onak jarduera fisikoarekin eta bizi-estilo osasuntsuekin lotura duela, ongizate psikologikoarekin harreman zuzena duela...

Orain arte egindakoak

Autokontzeptu fisikoa hobetze aldera, jarduera fisikoa eta ohitura osasuntsuak sustatzeko egitasmoak bultzatu izan dira. Urriagoak izan dira izaera kognitibodun egitasmoak, eta harritzekoa da, ezagupenak autokontzeptuaren eraketan duen pisua kontuan izanik.

Programa horiek hainbat teoria psikologikotatik edan izan dute. Esku-hartze egitasmoek jarduerak eta baliabideak modu eklektikoan elkartzen dituzte, besteak beste: ariketa fisikoaren onurez informazioa zabalduz, bakoitzaren gaitasun eta muga fisikoak ezagutuz, kirol jarduera sustatuz, helburu berriak ezartzera animatuz eta motibatuz... Neurri horiek lagungarri izango badira ere, autokontzeptu fisikoaren barne egiturari buruz eta hainbat aldagai psikosozialei buruz berriki eskuratutako ezagutzak aintzakotzat hartu beharko dira.

Esku-hartze egitasmoek jarduerak eta baliabideak modu eklektikoan elkartzen dituzte, besteak beste: ariketa fisikoaren onurez informazioa zabalduz, bakoitzaren gaitasun eta muga fisikoak ezagutuz, kirol jarduera sustatuz, helburu berriak ezartzera animatuz eta motibatuz... Neurri horiek lagungarri izango badira ere, autokontzeptu fisikoaren barne egiturari buruz eta hainbat aldagai psikosozialei buruz berriki eskuratutako ezagutzak aintzakotzat hartu beharko dira.



Irizpide berriak

Autokontzeptuak hamabi urte inguru arte osotasunezko izaera du. Nerabezeroatik aurrera, ordea, bereizketa gertatzen da, barne egitura hierarkiko eta dimentsioanizta sortu arte. Egitura horrek hezkuntza eremutik bideratutako esku-hartzea baldintzatzen du:

- Autokontzeptua hobetzeko esku-hartzeak horren dimentsio zehatzenak eta beheko mailako dimentsioak moldatzera bideratu beharko dira (esate baterako autokontzeptu fisikoa). Izan ere, atal horiek dira moldagarrienak. Autokontzeptu orokorrean emaitzarik eskuratzeko iraupen luzeko esku-hartzeak beharko dira.

- Eremuen arteko balioak haien artean konpentsa daitezke, oreka eskuratuz. Hau da, posible da batek autokontzeptu akademikoan balio kaskarra izatea, baina fisikoan altua izatea, eta azkenean autokontzeptu orokorra ona izatea.



Autokontzeptu fisikoak zenbait aldagairekin harreman estua du: jarduera fisikoa, bizi-estiloa, elikatze ohituren nahasteak edo hainbat kulturen eragina. Erlazio hori norantza bikoa da: autokontzeptu fisikoaren igoerak aldagai horien hobekuntza dakar, baina baita alderantziz ere: ohitura osasuntsuak sustatuz edo jarduera fisikoa areagotuz, autokontzeptu fisikoa hobetzea lortuko dugu. Ondorioz, aldagai horiek hobetzera bideratutako esku-hartze egitasmoek oinarri zientifikoa dute, zeharka autokontzeptua igotzea lortuko baitute.

- Eremu zehatz batean izandako arrakasta edo porrotak (kirol gaitasuna, esate baterako) eremu horretan eragingo du (autokontzeptu fisikoa) baina gerta daiteke, hala eta guztiz ere, autokontzeptu orokorrarekiko eraginik ez izatea (pertsona horrentzat atal hori ezinbestekoa ez bada behintzat, kirolari profesional baten kasuan, adibidez).

- Autokontzeptu fisikoak zenbait aldagairekin harreman estua du: jarduera fisikoa, bizi-estiloa, elikatze ohituren nahasteak edo hainbat kulturen eragina. Erlazio hori norantza bikoa da: autokontzeptu fisikoaren igoerak aldagai horien hobekuntza dakar, baina baita alderantziz ere: ohitura osasuntsuak sustatuz edo jarduera fisikoa areagotuz, autokontzeptu fisikoa hobetzea lortuko dugu. Ondorioz, aldagai horiek hobetzera bideratutako esku-har-

tze egitasmoek oinarri zientifikoa dute, zeharka autokontzeptua igotzea lortuko baitute. Autokontzeptu fisikoaren kasuan arreta berezia jarri beharko diegu sasoiari, indarrari eta trebetasun fisikoari. Ikusi baita, azpiero zehatz horiek betiere autokontzeptu orokorra baino moldagarriagoak direla.

Dena den, gakorik eraginkorrena norberak bere esperientziak prozesatzeko erabiliko duen kodea eraikitzen laguntzea dela ikusi da. Jarduera didaktikoak proposatzeko ondorengo oinarri psikodidaktikoak kontuan izan beharko dira:

a. Testuinguru hurbilak eta komunikabideek bakoitzarengan duten eragin kaltegarriaz jabetzea.

b. Epaitzen gaituen pertsonaren inguruan gogoeta egitea. Kanpoko guztien iritziek ez dute pisu berbera, (pertsona kuttunenak gehiago, jakina). Eragin hori erlatibizatzen jakin behar dugu (dagokion garrantzia ematen).

c. Zein erreferentzialderekinerkatu ongi aukeratzea. Parte hartu nahi dugun taldeak gure helburuak eta nahiak baldintzatuko ditu. *Ni-errealaren* ("ez dut beste munduko kirol trebetasunik") eta *Ni-ideala*-ren ("baina ez dut zertan goi-mailako kirolaria izan behar") arteko tartea murrizten lagundu behar du.

d. Autokontzeptu fisikoaren atal bakoitzari eskainitako garrantzia zaintzea. Maila eskasa dugun gaitasunei garrantzia handia emanez gero, eta trebeak garen arloak gutxietsiz gero, autokontzeptu maila kaskarra eskuratuko dugu. Pertsona batek bere burua itsusiztat izan arren, edertasunaren garrantzia erlatibizatuz, autokontzeptu fisiko ona izan lezake.

e. Arrakasta eta porroten arrazoia zeri leporatzen zaio zaintzea. Gai izatearen sentimendua ez da lortutako emaitza objektiboaren arabera eskuratzen. Zenbaitek beti autokontzeptu negatiboa dute, arrakasta kanpoko jatorriarekin lotzen baitute (zoria) eta porrota barne arrazoiekin (gaitasun eskasa). Beste batzuek, ordea, bere burua arrakasten arduradun gisa ezartzen dute, eta, kanpoko arrazoiak, porroten zergati gisa (zorte txarra, eginkizun zailegia).

te, eta, kanpoko arrazoiak, porroten zergati gisa (zorte txarra, eginkizun zailegia).

f. Asmoen eta helburuen maila. Duela mende bat William James-ek esan zuen autokontzeptua lortu nahi denaren eta lortzen denaren arteko distantzia dela. Testuinguru horretan pertsona bizi-proiektuak eraikitzen lagun diezaiekegu.

"Pozik zure itxurarekin?" izeneko egitasmoa

Aurreko irizpideak kontuan izanik, "Pozik zure itxurarekin?" izeneko hezkuntza egitasmoa sortu da. Bina bertsio badira (euskaraz eta gaztelaniaz) papezko bertsioan (Goñi et al., 2007, Caja Vital Kutxa), CD formatoan (EHU-UPV) eta baita sarean on-line moduan ere.

Egitasmoaren bidez, informazioa eta jarduerak proposatzen dira: norbere buruaren autoezagutza errazteko, distortsio kognitibo kaltegarriak saihesteko, jarrera egokiak hartzen laguntzeko, eta finean, autokontzeptu egokia eraikitzen laguntzeko.

Gai izatearen sentimendua ez da lortutako emaitza objektiboaren arabera eskuratzen. Zenbaitek beti autokontzeptu negatiboa dute, arrakasta kanpoko jatorriarekin lotzen baitute (zoria) eta porrota barne arrazoiekin (gaitasun eskasa). Beste batzuek, ordea, bere burua arrakasten arduradun gisa ezartzen dute, eta, kanpoko arrazoiak, porroten zergati gisa (zorte txarra, eginkizun zailegia).

Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa duen edonoren
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa euskal
hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.

apirila


berriak

100 ikasletik 15ek ikasketak utzi zituen 2007an

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 18 eta 24 urte bitarteko ikasleen % 15ek ikasketak utzi zituen 2007an. Urtebete-an % 0,2 hobetu da datua, baina, Europako Batasunak 2010. urterako finkatutako helburuetatik urrun da oraindik. Izan ere, Europako Batasunak ezarritako helburuaren arabera, gehienez, 18 eta 25 urte bitarteko ikasleen % 10ek utzi beharko lukete eskola. Eusko Jaur-laritzak maila horretara heltzea zaila izango dela esan du eta Europako Batasunak ere zailtasunak izango dituela maila horretara heltzeko.

Bestalde, irakurtzeko gaitasun ego-kia ez duten ikasleen kopurua Europa-ko Batasunak zehaztutakoaren gainetik dago. PISA probetan parte hartu duten Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikasleen % 17k eman zuen maila ego-kia. Eta, Derrigorrezko Bigarren Hez-kuntza bukatu ostean ikasten jarraitu duten 20 eta 24 urte arteko gazteen kopurua ere ez da Europako adierazle-tara heltzen: ikasleen % 80,8 ikasten jarraitzen dute eta Europak % 85eko hel-burua ezarri zuen.

Baina, bi kasutan Europak zehaztu-takoa gainditzen dute EAEko ikasleek. Matematika, Zientzia eta Teknologia ikasketak egiten dituzten ikasle kopu-ruari dagokionez, 1.000 biztanleko 15 ikasle egotea zehazten du Europak, eta, EAEn, 27,8 dira, Eustatek emanda-ko datuen arabera. Bestalde, etengabe-



ko prestakuntzari dagokionez, 24 eta 65 urte arteko pertsonen % 13 presta-

kuntza jardueretan hartzen dute parte, aholkatutakoa % 12,5 den bitartean.

Euskal curriculumak babestu dute HUHEZIKO ikasleek

Iazko ekainaren 21ean aurkeztu zen euskal curriculumari "babesik handiena" agertu diote Eskoriatzako HUHEZI fakultateko 120 ikasleek. Irakasle eskolako ikasleek curriculumak

ezar dadin "ahalik eta babes sozialik handiena" lortu behar dela adierazi dute eta "ikasle bezala, orain, eta irakasle bezala, etorkizunean, euskal curriculumak ikasgeletan egiazko izan dadin"

haien esku dagoen guztia egiteko konpromisoa hartzen dutela jakinarazi dute. Konpromiso bera eskatu diete ikas-kideei, eta egun irakasle eskoletan ikasten ari diren gainerako ikasleei.

Konpententzietan oinarritutako hezkuntzaren lanketa berretsi dute ikastolek

Konpententzietan oinarritutako hezkuntzaren lanketa berretsi zuten Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak *Hausnartu eta ekin* lelopean Gasteizen martxoaren 10ean, 11an eta 12an egin zituzten XVI. Jardunaldi Pedagogikoen ostean. Hiru egunetan, 500 profesional elkartu ziren Gasteizen eta Euskal Herriko 75 ikastola eta ikastetxe egon ziren ordezkakuta.

Konpententzietan oinarritutako hezkuntzari buruzkoak izan ziren Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak antolatutako XVI. Jardunaldi Pedagogikoak. Konpententzietan oinarritutako hezkuntzaren garapena ezagutza kontuan harturik eraiki behar dela azpimarratu zuten antolatzaileek, baina, argi utziz, soilik ezagutzan oinarritutako hezkuntzak ere, ez duela haur eta gazteek beharrezko dituzten konpetenziak garatzea bermatzen.

Etorkizunera begira, berriz, hainbat gai landu beharra ikusi dute arduradunek. Lau puntutan sailkatu dituzte: alde batetik, curriculum berrirako eskola-materialen egokitze eta hobetze proze-



suan, eta prestakuntza planen eta ebaluazioaren garapenean, administrazioaren laguntza eta inplikazioa ezinbestekoa dela esan dute. Bestetik, irakaskuntza kooperatiboan sakondu beharra ikusten dute. Horrez gain, gurasoen parte-hartzea bultzatu nahi dute eskolan, eskola eta etxea bata bestearen osagarri izan daitezten. Eta azkenik, emozioei dagokien espazioa eman

nahi diete.

Ikastola eredu komuna lantzen jarraitzeko asmoa agertu dute, baina ikastola bakoitzaren autonomia pedagogikoaren garapena aintzat hartuz eta elkarlana bultzatuz. Ildo horretan, hainbat esperientzia partekatzea egoki ikusten dute, eta horiek guztiak ikusteko, www.ikasleiho.net ataria sortu dute.

IKTB telebista sortu du Nafarroako Ikastolen Elkarteak

Haurren eta gazteen ekimenak islatu nahi ditu Nafarroako Ikastolen Elkarteak IKTBen bidez. www.iktb.tv web gunean ikus daitekeen telebistan gauza asko jaso dituzte dagoeneko: musika taldeen bideoak, agenda kulturala, Nafarroa Oinez 09ren irudiak, erabiltzaileek jarritako bideoak... NIEk teknologia berrieekin duen konpromisoa berretsi nahi izan du IKTBen bitartez.

IKTB sortzeko arrazoi pedagogikoak badirela adierazi du Izaskun Arratibel, Nafarroako Ikastolen Elkartearen lehendakariak, haren hitzetan haur eta gazteen ikaskuntza osatuko duen baliabidea baita telebista berria. Bestalde, eskoletako hainbat eduki telebistan jarriko dituzte eta ikasleek ikasketa paraleloa egin ahal izango dute.

IKTB telebista eleaniztuna izango da, baina euskararen erabilera bermatu nahi dute. Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso du NIEk proiektua aurrera eramateko.



Eskola publikoaren aldeko aldarrikapena Deustuan

Sortzen-Ikasbatuaz elkarteak Iruñean maiatzaren 24an egingo duen jaiaren aurrerapena egin zuen joan den martxoaren 18an Bilboko Deustua auzoan *Bizi euskal eskola* lelopean. Euskaraz bizi den eskola euskalduna, pedagogia berritzailea duena, parte-hartzailea eta parekidea aldarrikatu zuten.

Jaiaren antolatzaileek nabarmendu zuten, Bilboko ikastetxeek D eredua eskaintzeko "arazoak" dituzte eta Zurbaran Institutuan bizi duten egoera aipatu zuten, izan ere, gurasoek eta ikasleek hala eskatu duten arren, Institutu horretan D eredurik ezingo dela ezarri esan zuten.

Maiatzaren 24an egingo du Sortzen-Ikasbatuaz elkarteak urtero egiten duen festa. 14. edizioa izango da aurtengoa, eta Iruñeako Takonera parkean egingo dute. *Bizi euskal eskola* izango da aurtengo leloa eta egitarau polita osatu du Antsoingo Haur eta Lehen Hezkuntzako Ezkaba ikastetxeak, hari baitagokio aurtengo jai antolatzea. Besteak beste, kaleko musika, esku-lanak, dantzak, pailazoak eta rock taldeak izango dira Iruñean.



Ikastaroak

* **Familia eta hezitzaileen arteko elkarlana: Haurren heziketa partekatua (Haurreskolak 08/09) Noiz:** apirilak 21-maiatzak 14 **Non:** Luis Briñas ikastetxea, Bilbo **Antolatzailea:** UEU **Izena ematea:** www.haurreskolak.net **Informazio gehiago:** www.ueu.org.

* **Berrikuntza eta hezkuntza sormena Noiz:** apirilak 23 **Non:** Bilbo **Antolatzailea:** Hezkuntza Ildo Berriak Fundazioa **Izena ematea:** 902.431.179 edo inscripciones@fundacionnce.org **Informazio gehiago:** www.fundacionnce.org.

* **Heziketa praktika psikomotrizean trebatzeko sentsibilizazio ikastaroa Noiz:** apirilak 24, 25 eta 26 **Non:** Pio Baroja ikastetxea, Bilbo **Antolatzailea:** Luzaro Psikomotrizitate Eskola, UNED **Izena ematea:** 943 769 033 **Informazio gehiago:** 943 769 033.

* **Konstruktibismoa eta hezkuntza Noiz:** apirilak 25 eta 27 **Non:** Bilboko Euskalduna Jauregian eta Donostiako Irakasle Eskolan, hurrenez hurren **Antolatzailea:** Hik Hasi **Izena ematea:** www.hikhasi.com. **Informazio gehiago:** www.hikhasi.com edo 943 371 408.

Ikastolen Hizkuntza Proiektua, euskaldun eleaniztunak sortzeko

Euskaldun eleaniztunak sortzea da Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren helburua eta norabide horretan, *Ikastolen Hizkuntza Proiektua* izeneko lana kaleratu dute. Duela bederatzirte ekin zioten ikastolek Hizkuntza Proiektua aztertzeari. Hizkuntza Proiektuaren lehen markoa garatzeko hainbat eremutako adituen talde teknikoa izendatu zen. Ondoren, Hizpro egitasmoa jarri zuten abian ezaugarri desberdinak zituzten zenbait ikastolarekin, ikastola bakoitzak bere Hizkuntza Proiektua gara zezan. 2008an talde hori 36 ikastolakoa izatera iritsi da eta garatu duten bidearen emaitza eta tresna gisa, *Ikastolen Hizkuntza Proiektua* liburua kaleratu dute.

Liburua, tresna praktikoa da, eta bi atal ditu. Lehena, Hizkuntza Proiektuaren erreferentzia-markoa deitu dutena, eta bigarrena, Hizkuntza Proiektua garatzeko gida, praktikoa dena. Gidak, jarraibide zehatzak eskaintzen ditu ikastola bakoitzak bere testuinguruari eta ezaugarriari erantzunez, Hizkuntza Proiektua sor dezan.

Europako Batasunaren hezkuntza norabideen eraginez, hizkuntza irakaskuntza eskola-sistemen lehentasun bihurtu da, eta, horrez gain, gure gizar-



tean eskola elebidunen eta eleaniztunen arteko eztabaida ugari izan da azkenaldian. Eusko Jaurlaritzak onetsia duen curriculum dekretuan, berriz, ikastetxe bakoitzak datozen bi ikasturteen buruan bere Hizkuntza Proiektua egin behar duela agindu du. Testuinguru horretan, ikastolek, euskarari eta euskalduntasunean ardaztutako hezkuntza eleaniztasunerako ereduak garatu beharra ikusi dute eta liburua horren guztiaren emaitza da.



Hezkuntza Sistema Nazionalaren aldeko mobilizazioa deitu du IAK

Apirilaren 30a mobilizazio eguna izango da Euskal Herriko ikastetxeetan eta fakultateetan. Ikasle Abertzaleak elkarteak antolatuta, Hezkuntza Sistema Nazionalaren aldeko mobilizazio eguna izango da eta lanuzteak antolatuko dituzte. "Baterajotze nazionala" izena jarri diote ekimenari eta *Hezkuntza sistema arrotzen gainetik, ikasleria eraikitza, borrokara!* lelopean egingo dituzte lanuzteak. Araban, dena den, apirilaren 23an izango da mobilizazio eguna, apirilaren 30eko astea jai hartuko dutelako askok.

Oraindik ere, ikasleen egoera "latza" dela esan du IAK, baina "borroka propioak piztu" direla esan dute; Euskal Curriculumaren aldeko konpromisoa, Boloniako prozesuaren aurkako borroka, Nafarroan eskolak euskalduntzearen alde egin diren ekimenak edota EHUko Letretako fakultateko ikasketak desagertzearen kontra egindako mobilizazioak, besteak beste.

Euskal ikasleek pairatzen duten egoeraren erantzulea hezkuntza sistema arrotzak direla salatu du IAK, eta hori salatzeko egingo dituzte mobilizazioak.



Hik hasiren web gunean dugun EZTABAIDAGUNEA paperera ekarri dugu. Hilero, web orrian jasoko ditugun iritzien laburpena izango duzue eta baita hurrengo hilabeteko galdera zein izango den ezagutzeko aukera ere. Hona hemen martxoko eztabaidak utzi diguna...

>>> Gure inguruan zenbait ikastetxetako ikaslek uniformeak erabiltzen dute. Beste herrialde batzuetan ere, Kuban, esaterako, erabiltzen dute. Zer iritzi duzu uniformearen erabileraz?

> Egia esan eta hasiera batean ondo iruditzen ez bazitzaidan ere, orain ama naiz eta...uniformeak baietz diot. Nire txikitako traumak alde batera utzirik eta haurrak eskola publikora daramatzadan arren, nik gaur egun, ekonomiagatik, egunero zer jantziko duten pentsatu eta euren artean marken enbidia edota alderik izan ez dadin, uniformearen erabilera sustatuko nuke. *Amatxo bat.*

> Kubako gizarte militarizatuan edota hemengo ikastetxe "pijoetan" uniformeak erabiltzen dela eta gai horrekin eztabaida bat hasi? Puf! Utz dezagun gaia dagoen bezala mesedez! Gainera, ikastetxeko txandala dela eta, nahiko "uniformizatuta" dabilta gure haurrak! *Fermin.*

Datorren hilabeteko eztabaidarako galdera...

>>> Administrazioak etorkinen eskolatzeko esku hartzen du batzuetan. Zenbait herritan, adibidez, eskola jakinetara bidertzen dituzte. Bide egokia ote da hori?

Partekatze proiektuak

Eskuarteetan proiektu interesgarriak izango dituzue, ziur. Maiz, apalen batean ahaztuta geratzen dira, ordea, eta guk, hautsa kendu eta horiek partekatzea bultzatu nahi zaituztegu. Ikastetxeetan erabiltzen diren proiektuak, materialak, fitxak, irudiak, gidoiak, powerpointak, unitate didaktikoak... partekatze aukera duzue gure web gunean. Guztion artean, hezkuntza aberasteko aukera dugu. Anima zaitzete besteekin PARTEKATZERA!

Gure buletin elektronikoa jaso nahi al duzu?

Zure helbide elektronikoa HIK HASIRI buruzko azken berriak eta hainbat albiste jaso nahi badituzu, gure buletin elektronikoa harpidetu besterik ez duzu egin behar. www.hikhasi.com web orrian izena eman, eta etxetik mugitu gabe jasoko duzu HIK HASIREN BERRI!




korrika *æek*

ongi etorri

Tutera-Gasteiz 09
martxoaren 26tik
apirilaren 5era

euskaraz hizi nahi dugunon herrira!

argitalpenak



Ez ezkondu, aita!
Fina Casallerrey Fraga
ELKAR

Eliak bi neba-arreba ditu eta aita zozagarria; ama, ordea, duela urte batzuk hil zitzaion. Orain, berriz, beste emakume bat dabil aita endredatu eta bere bizitzan sartu nahian, baina Eliak ez du halakorik nahi, inola ere. 13 urtetik gorako gaztetxoei zuzendutako liburua da Fina Casallerrey galiziarrek idatzitakoa. Juan Martin Elexpuruk egin du itzulpena •



Elurte bateko ipuinak
Pako Aristi eta Intxaurrondo
ikastolako ikasleak
EREIN

Intxaurrondoko ikasleek idatzitako ipuinak, fikzioan kokatu ditu Pako Aristik. Idazlea autoan doala, elurtearen eraginez autopista itxi dute, eta bidaiari guztiak polikiroldegira bideratuko dituzte, gaua han igarotzeko. Eskursiora zihoan haur talde batek idazlea ezagutu du eta gaua elkarrekin igarodute, bakoitzak ipuin bat kontatuz •




Pello eta Otsoa
Sergei Prokofiev
IKAS

Sergei Prokofieven obra klasikoa euskaratu du IKASek. Ipuin musikala da eta musika heziketarako baliagarria da. Pellok otsoa harrapatu nahi du eta laguna duen txoriaren eta soka magikoaren laguntzaz, otsoa harrapatzea lortuko du... Testua, Daniel Landartek landu du, Maddi Oihenartek egin du grabaketa eta, Laure Gomez marrazkilarri zuberotarrak egin ditu irudiak •



Zurekin barre egin, ez zure bizkar
NAFARROAKO GOBERNUA

Nafarroako Hezkuntza Departamentuak Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan bizikidetzaren hobetzeko kanpainarako argitaratu duen liburuxka da. Ikasketa maila guztietarako ipuin bana aurkeztu dute bizikidetzarekin lotura duten gaiak lantzeko. Gatazkak ebazteko modu alternatiboari bultzada ematea da helburua, egileek esan dutenez •



Ogi xerra zergatik erortzen den beti gurinaren aldetik
Richard Robinson
GAIK

Robinsonek Murphyren legearen azalpen zientifikoak aurkezten ditu. Fikzioaren eta errealitatearen artean dagoen mugaren nondik norakoak deskribatzen ditu. Gakoa, burmuinaren funtzionamenduan dago, eta sentimenduak, mezuak, oroitzapenak... puzzle handi baten piezak dira •



Jerusalem. Xalimen hiria
Fito Rodriguez
UTRIUSQUE VASCONIAE

Hamaika ate ditu Jerusalemgo harrisi zaharrak eta horiek baliatu ditu idazleak erlijioa, nazionalismoa, gatazkak eta bakea... Atalez atal doan elkarriketaren bidez, Palestinaz haratago aurki daitezkeen antzeko egoeren nondik norakoak era ulergarrian azaltzen saiatu da idazlea •

... nora joango gara?

Arditurri

Meategietan barrena aztarna bila

Hogei mendeko historia ezagutu duten galeriak gordetzen ditu bere erraietan Aiako Harria parke naturalak. Erromatarrek Euskal Herrian izan zirenean, gaur egun Oiartzungo lurretan dauden meategietan aritu ziren lanean, zilarra ateratzeko. Ordu-tik 1984. urtera arte, ustiapen aroak izan dituzte Arditurriko meategiek. Gaur egun, ikusgai daude 2.000 urtean egindako lanaren aztarnak.

Arditurriko meategiaren ustiapen antolatua lehena azarnak Erromatar Inperioaren garaioak dira. Erromatarrek K.a. I. mende inguruan heldu ziren Euskal Herrira, eta zilarra ateratzeko ustiatu zuten meategia. Galeria ugari zulatu zituzten Arditurri, horietatik hamabost bat kilometro aurkitu dira, eta uraren maila jaisteko eta meategia ustiatzeko jarraitzeko drainatze sistema egin zuten. Uraren maila 15 metro jaitsi zuten, eta, horri esker, gerora ere meategia ustiatzeko jarraitzeko aukera izan zen. Erromatarrek egindako lanari neurria hartzeko balio du Guillermo Thacker ingeniari alemaniarrak 1803an Oiartzunen, Arditurriko meategiak aztertu ondoren, esandakoak: "Ez lirarteke nahikoa lauhun gizon berrehun


urtean lanean, mea zulo hauek guztiak zulatzen".

Erdi Aroan, berriz, burdina ateratzea izan zuten helburu nagusi, eta ateratzen zuten mea Oiartzungo burdinetan lantzen zuten. Gerora, zenbait mende geldirik egon ondoren, XVIII. mendean, Oiartzungo Sein familiak

hartu zuen meategia ustiatzeko ardura, zilarra eta beruna ateratzeko. 1830ean, Compañía Guipuzcoana de Minas izeneko enpresa hasi zen ustiaketa lanak egiten. Orduan, ustiatzeko ziren mea zuloak zabaldu egin ziren eta, horrekin batera, aurreko garaietako aztarna asko galdu. Gerora, 1902tik 1904ra, Bil-



Oskar Zapirain.



Felix Ugarte Elkartearen artxiboa.



Oskar Zapirain.

boko Compañía Chavarri Hermanos izeneko enpresari eman zioten burdina ustiatzeko baimena, eta mea Pasaiako porturaino eramateko trenbidea eraiki zuten. Trenbidea zegoen lekuan, Arditurriko Bide Berdea dago gaur egun, oinezkoentzat eta bizikletarientzat egokitua.

XX. mendeko 60ko hamarkadan, fluoritak interes handia piztu zuen, eta meategiak nabarmen modernizatu ziren. Zinka eta fluorita atera zituzten orduan, eta 1984an amaitu ziren Arditurriko meatzaritza lanak.

2001etik 2006ra bitartean, Arditurriko eta Otsamantegiko meatzeak itxi ondoren geratu ziren ingurumen arazoak konpontzeko, azterketak eta lanak egin zituzten. 2007ko udaberrian hasi ziren egokitze lanak egiten, eta 2008ko ekainetik bisita daiteke Arditurriko meategia.

Hainbat aztarna ikusteko aukera

Arditurriko interpretazio zentroan, Aiako Harria Parke Naturaleko ondarea, kultura eta natura ezagutarazten dituzte, hainbat euskarriren bitartez. Horren ondoren, bisitariak meategira sartzen dira, eta hara sartzeko ezinbestekoa da kaskoa janztea. Barnean, pasagunea atondu dute gutzia eroso ikusteko, eta beheko aldea, indusketa lana egin den eremua ere, bisita daiteke. Erromatar garaiko aztarnak ikus daitezke han, meatzariak utzi zituzten moduan. Gutxienezko segurtasun neurriak eskatzen ditu hara jaisteak. Meategia ikusgarria da, eta ikusgarriak dira, baita ere, meak koloreztatutako ur putzu urdinak.

ARDITURRI MEATEGI ESPARRUA

Arditurri
20180 Oiartzun
Telefonoa: 943 494 521
www.arditurri.com
arditurri@arditurri.com



Oharrak:

- Arropa eroso eta eramatea komeni da, batez ere beheko solairua bisitatu behar bada.
- Hizkuntza: bisitak euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez egin daitezke.
- Bisita motaren arabera, taldeek gehienezko kopurua dute.
- Prezioak bisitaren arabera dira.

Bisitak:

- **Arditurriko ohiko bisita:** meategiaren goiko solairua ikus daiteke.
- **Arditurriko abentura bisita:** meategiko goiko eta beheko solairuak ikus daitezke. Bost urtetik aurrera.
- **Tren Berdea + Arditurri:** Arditurriko Tren Berdean joateko eta, ondoren, meategia bisitatzeko aukera dago.
- **Tren Berdea + Arditurri + Museoa:** aurreko bera, baina Herri Musikaren Txokoa edo Luberrri Ikasgune Geologikoa bisitatzeko aukerarekin.
- **Tren Berdea + Bisita arkeologikoa:** Arditurriko Tren Berdean joateko eta, ondoren, meategiko goiko eta beheko solairuak bisitatzeko aukera dago.
- **Tren Berdea + Bisita arkeologikoa + Museoa:** aurreko bera, baina Herri Musikaren Txokoa edo Luberrri Ikasgune Geologikoa bisitatzeko aukera dago.

Ingurua:

- **Arritxulo aterpea:** Arditurritik gertu, Aritxulegi gainean dagoen aterpea da, eta 80 pertsonarentzako tokia du. www.arrantxulo.org
- **Aisiarako kanpo eremua:** mahaia, aulkiak eta haur parkea daude meategiaren kanpoko aldean.
- **Ibilbideak:** hainbat ibilbide egin daitezke Aiako Harria parke naturalean. Bi aipatuko ditugu:

* Arditurriko bidegorria: Oiartzungo bailara osoa zeharka daiteke. 14 kilometroko ibilbidea da, erraza.

* Urak eta meatzaritzak moldatutako ibilbidea: sei kilometroko mendi ibilbidea da. Imanol Marrodán-en "Erabatekoa eta ezdeusa: sorburua" izeneko eskultura ikus daiteke.



Oskar Zapirain.



NM Creaciones.

atzeko atetik



Julen ZELAIETA

BERTSOLARIA

Ikastolako garaiak bereziak izan ziren niretzat. Ondoko institutukoak ere, baina batez ere ikastolakoak. Institutua uzteak ez zidan pena handirik eman, ikastola uzteak, aldiz, hasieran poza baina ondotik pena pixka bat eman zidan; faltan bota nituen *ikastolako lagunak*. Izan ere zorrea izan nuen eta nahiko talde polita tokatu zitzaidan ikastolako, pentsa, bertatik atera ginela hamabortz urte pasatu dira eta oraindik afariak egiten segitzen dugul! Eta, jakina, afari horietan orduko *anekdota-hazañen* erreposoa egiten dugu. Hala ere, badago niretzat *hazaña* pertsonala izan arren, bertan inoiz kontatu ez dudarik, eta, gaur, *esklusiban* kontatzeko aukera izanen dut.

Erran bezala, ikastolako lagun talde polita tokatu zitzaidan, eta talde diot, gurea *talde* bat zelako. Baina, talde guztietan bezala denetarik zegoen: kirolaria, *enpolloia*, astazakila (horrek, zorionez 3. maila errepikatu zuen, eta bistaz galdu ge-

7. mailan...

nuen), ligoia, arriskuzalea... Eta ezertan ona ez zen gixajoa. Nor zen? Ni? *Ekilikua!* Ezertan ona ez zen gixajoa... Behinik behin, hala sentitzen nintzen: kirolerako ez nuen balio, ikasketetan ere erdipurdi, ligoia izateko ere... Uf! Gaizki! Tikia, potoloa, urduria... Hitz bakarrean: gixajoa. Kontua da, 5. mailan edo, gelako batek, orduan gelan "nor" zen gelakide batek, *Eskolarteko bertsopaper lehiaketa* irabazi zuela (oraindik maiz oroitarazten dizkiot orduan egin zituen bertsoak!). Orduan, adinaren gorabeherengatik ez nuen hagitx begiko gelakide hori. Inbidiagatik edo izanen zen? Idearik ez. Kontua da ni ordurako konturatua nintzela denbora pixka bat gehiago pentsatu, eta gauza landuz gero, nik ere bertso onak egiten ahal nituela eta gelakideak saria irabazi zuela ikusita, nire buruari erran nion: "Horrek irabazi badu, ni ez naiz guttiago izanen!".

Eta horrela, hurrengo urterako ni ere animatu, eta *Bertsopaper lehiaketaren* berri izan orduko, zezenari adarretatik heldu eta serio-demonio lau bertsoekin sorta egin eta eskualdeko lehen saria eman zidaten. Ez dakizue zer ilusio egin zidan! Gainera gelako *enpolloiak* eraman zuen bigarren saria, eta, hirugarrena, kirolean ongi moldatzen zenak. Horien aintzinetik gelditu izana soilik, handia izan zen. Behingoz zerbaiterako gai nintzela erakutsi ahal izan nuen eta inguruan gus-

tura! Gainera, pilotari karrera frustratuaren ondotik nire alderdi berri bat ezagutzen hasia nintzen eta ez zen gutti! Ilusioz hartu nuen.

Kontua hor gelditu zen. Ez du hainbertzeko *hazaña* ematen, baina, benetako *hazaña* hurrengo urtean etorri zen, 7. mailan, hain zuzen ere. Orduan ere eskolarteko *Bertsopaper lehiaketako* deialdia iritsi zen eta irakasleak bertsoak egin behar genituela erran zigun. Gauza gogoz hartu eta tranpa ttiki bat egin nuen; bane-kien irakasleak ikastorduan bertan denbora utziko zigula baina, bezperan (asteazken arratsalde bat) etxean egin nituen bertsoak, eta han azaldu nintzen nire lau bertsoekin. Irakaslea harrিতuta gelditu zen, bai bertsoekin eta baita nire fundametuarekin ere (ez nintzen hagitx saiatua egia erran). Bi aldiz pentsatu gabe, bertso eskolan apuntatzeko proposamena egin eta gurasoei deitu ostean, egun hartan bertan hasi nintzen bertso eskolan... Gaur arte!

Nik uste dut nire bizitzan egin ditudan bertsoerik eraginkorrenak ez zirela "Kamiltxorenak" izan, 7. mailan egin nituen haiek baizik.

Urte hartan ez nuen lehen saririk jaso, hirugarren sariren bat edo eman zidaten, eta gelako batzuk ere nire aitzinetik gelditu ziren. Baina ez zuen inporta; dagoeneko gelako *bertsolaria* nintzen.



Britainia Handian egindako ikerketa baten arabera, ikasgelan mutilik gabe ikasten duten neskek emaitza hobekien lortzen dituzte ikasgela mistoetan aritzen direnek baino. Ikerketak heziketa mistoaren gaineko eztabaida piztu du: batzuek diotenez, neskek hobeto ikasten dute inguruan arreata galarazten dien mutilik ez dutenean. Beste batzuek, ordea, beste alderdi batzuek emaitzetan izan dezaketen eragina azpimarratu dute; ikaslearen beraren ezaugarriak, inguru soziala eta irakaslea, besteak beste.

Iturria: The Guardian egunkaria, 2009-03-18.

OGI XERRA ZERGATIK ERORTZEN DEN BETI
GURENAREN ALDETIK
MURPHYREN LEGEAREN ZIENTZIA EZKUTUA



Richard Robinson

Liburu honetan, Robinsonek Murphyren legearen azalpen zientifikoak aurkezten ditu. Horretarako, fikzioaren eta errealtatearen artean dagoen muga hauskorren nondik norakoak deskribatzen ditu, eguneroko hamaika pasadizo dibertigarriren bitartez. Liburua hizkuntza askotara itzuli da eta oinarrizko materialtzat jotzen da hainbat hezkuntza-ekimenetan. Richard Robinson zientzia-dibulgatzaile ospetsua da eta izaera zientifikoa duten ekitaldiak (telebista-emanaldiak, parte-hartze zuzenak...) antolatzen ditu mundu osoan zehar.

Giordano Brunoren eta Galileoren prozesuak; unibertsoak laua izan behar zuenaren Euklidesen uste okerra; termodinamikaren bigarren printzipioaren eta unibertsoaren heriotza termikoaren inguruko eztabaida sutsuak; elektrizitate jarraia edo alternoa aukeratzeko izan ziren gorabeherak; N izpiak inoiz existitu izan ez zen erradiazioa; fusio hotzaren iruzurra; eugenesia zientzia gisa agertzea... Liburu honetan zientziaren boterearen inguruan eremu ilunak, eztabaidatsuak, bihurriak, ideologikoak... elkarkidetzen direla agertu nahi izan dugu. Helburua ez da zientziaren kontra jartzea. Ez. Baina bai ikustea, zientziak ere gizakiaren itzala baduela, horren handitasun eta txikitasun guztiekin.

ZIENTZIAREN
AKATSAK



Joseba Etxeberria
Unai Mtz. Lizardui

ZURE LIBURUDENDAN
SALGAI!

...aurkitzen ez badituzu, eskatu gure web orrian:

www.gaiak.net



KONSTRUKTIBISMOA eta bezkuntza

Apirilaren 25ean (larunbata) BILBON - Apirilaren 27an (astelehena) DONOSTIAN
Saio bera izango da bi hirietan

9:00 Karpetak eta materiala banatzen hasiko da.

9:30 Konstruktibismoaren ikuspegi orokorra eta betekizuna.
* **Lontxo OIHARTZABAL**. LHko eta EHUKo irakasle ohia.

10:30 Zergatik konstruktibismoa? Zein dira buru egituraketa nagusiak? Zer ondorio ditu horrek guztiak ikasketa prozesuan?

* **Mario CARRETERO**. Madrilgo Unibertsitate Autonomoko katedraduna. Giza Zientzien Latinoamerikar Fakultateko iker-tzailea Argentinan. Egun, AEBetako Harvard unibertsitatean dihardu. Ikerketa eta liburu ugariren egilea. (gaztelaniaz).

11:30-12:00 Atsedenaldia

12:00 "Lurbiran" proiektua. HH-LH

* **Mertxe AMONDARAIN** irakaslea (Berrobiko eskola).

12:30 "Hizkuntza lehiaketa" proiektua. HH-LH

* **Elena LAIZ** eta * **Mintxa AGIRRE** irakasleak (Zizurkil Coikoko "San Milan" eskola)

13:00 Zertan zentratu behar du Gizarte Zientziak irakasten dituen irakasleak? Adibide zehatzak jarriko dira.

* **Mario CARRETERO** (gaztelaniaz)

14:00-15:30 Atsedenaldia

15:30 "GASekin esperimentatzen". DBHko eta Batxilergoko esperientzia praktikoak.

* **Mikel ETXANIZ** irakaslea (Pasaia-Lezo lizeoa).

16:30 Zertan zentratu behar du, non jarri behar du atentzioa, Natur Zientziak irakasten dituen irakasleak? Adibide zehatzak jarriko dira.

* **Mario CARRETERO** (gaztelaniaz)

Informazioa eta izena ematea

943 371 408

www.hikhasi.com